

URDAIBAI

XI Urte
2025

zenb° 43

©MAGAZINE



HERRI KIROLAK

SUSTRAI SENDOAK, ETORKIZUN BARRITZAILEA

| URDAIBAKO TXOKO GOGOKOENAK

| TRENAK EKARRITAKOA

| ALDABA: 40 URTETIK GORA KULTURARI DEIKA

| BENITO BARRUETA, MARGOLARIA

| KALABAZINA, URTE OSOAN

| ZIRAUNE



Partida hau Kutxabanken Visa Korner txartelarekin ● irabaziko duzu.



12-30 urte bitartean Korner Visa Debit eta 18-30 urte bitartean Korner Visa Dual txartelak kontratatzeke aukera.

ETORKIZUNA IRAGANETIK HASTEN DA

Komunikabide batean honako hau irakurtzeak kezkatzekoa da: *"Iraganera bueltatzea: egurrezko eraikuntza Bizkaiko lau BOEtara iritsi da".* Aldi berean, lasaigarriagoa da ondare arkitetonikoari buruzko Ondarearen Europako Jardunaldietan geure eskualdeko eskaintzak "Egurrezko eraikuntza industrializatu eta iraunkorra" bisita barne hartu izana.

2010ean, Bilboko Ingeniarien Goi Eskola Teknikoa (EHU) aitzindaria izan zan, eta «Eraikuntzaren ingeniartza» masterrean egurrak eraikuntzan daukozen gaitasunei buruzko irakasgai bat sartu eban, orduko Euskadiko Zuraren Mahai Intersektorialak (MIME) babestua. Gure erakundeek, azkenean, egurra arkitekturan material lehiakor moduan sartzearen aldeko apustua egiten dabenean, eta Busturialdea-Urdaibain, baso eskualdea, egurra eraikuntzan integratzeko estrategia bat lantzen ari danean, enplegu txikiez edo artisauez harago, titularra engainagarria eta erredukzionista da.

Egurraren erabilera "iraganera bueltatzea" dala pentsatzeak esan gura dau material tradizionalak atzerakadatzat hartu behar dirala. Baina egia esan, arkitektura jasangarriago, ardura-tsua eta inguruneagaz konektatuago bateranzko bilakaera konzientea adierazten dabe.

Treneko garraioari buruzko orrialde hauetako erreportajearen Gernika-Lumoko geltokia barritzea atzerakadan inbertitzea dala esango bagenu bezala da, tren mundu digital eta azkar baterako mobikortasun eredu geldoa eta zaharkitua dalakoan. Barrikuntzak egitea ez da beti zerotik asmatzea, atzera begiratu barik. Barria eta zaharra danaren arteko bizikidetzaren positiboaren espiritu hau herri kirolei buruzko geure erreportajearen islatzen da. Erreportajearen agertzen danez herri kirolak errendimendua, eraginkortasuna eta segurtasuna hobetzeko apustu sendoa egiten dau, oinordetzan jasotakoa eta barrizaillea dana, tradizionala eta teknologikoa dana errespetuz integratuz, aurreiritzi eta nostalgia barik.

MIREN GARAY



ARGITARATZAILE

NUEVA EUROPA S.L.
Carlos Gangóiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus | tel.: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

ZUZENDARIA: Miren Garay. **ERREDAKZINOIA:** Miren Garay, Laura Pérez, Elisa Ispizua, Rafael Urien. **DISEINUA:** Nuria González. **ARGAZKIAK:** Nueva Europa SL. **EUSKERA IKUSKAPENA:** Laura Pérez. **TESTUEN IKUSKAPENA:** Miren Garay.

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA: 2025. 10. 30



AURKIBIDEA



- 04** ERREPORTAJEA. Sustrai sendoak, etorkizun barrizaillea: herri kirolen bide barria
- 11** DANONARTEAN.
- 18** VISIT URDAIBAI. Zuen txoko gogokoena
- 22** LURRALDEAN. Trenak ekarritakoa
- 28** LEKUKO. Aldaba: 40 Urtetik gora kulturari deika
- 31** KOLABORAZINOIA. Amagoia L. de Larruzea Zarate, Odolkideak alkarteburua
- 32** KALERIK KALE. Benito Barrueta
- 36** SALTSA PORRU. Kalabazina
- 38** BERDEAN. Ziraune
- 44** LABUR LABUR.

Sustrai sendoak, etorkorkizun barritzailea:

Herri kirolen bide barria



Kirolariei aplikatutako teknologia barriak. Argazkia: Baigene, Genetic Fitness

Teknologia, barrikuntza, teknifikazioa eta elikadura funtsezkoak dira potentzial eta erakargarritasun handiko geure herri-kirolen bilakaera bultzatzeko, errendimendu eta lehiakortasun handiko mailak lortzeko.

Teknologia eta barrikuntza kirolean aplikatzeak atleten entrenatzeko, lehiatzeko eta errendimendua hobetzeko moduak goitik behera aldatu dauz. Tresna horreek eskakizun-maila eta zehaztasuna handitu dabez, eta kirolarien prestakuntza fisikoa, teknikoa eta mentala be eraldatu dabe. Tresna hauek funtsezkoak dira edozein kirol-espezialidaderen bilakaerarako.

Gure herri-kirolak eremu birjinak dira neurketa zientifikoaren eta teknologia-ren aplikazioaren ikuspegitik. SUSTABIZ Fundazioa irabazi-asmo bako erakundea da, eta Gernika-Lumon sortu zan, euskal komunitate osoan barrikuntza- eta teknifikazio-irizpideak erabiliz geure herri-kirolak zabaltzeko eta sustatzeko, errendimendu handiko mailetara igotzeko.

BARRIKUNTZA, TEKNOLOGIA ETA ERRENDIMENTUA

Biomekanikak, kargen kontrolak eta adimen artifizialak teknikak optimizatzea ahalbidetzen dabe, esentzia tradizionala galdu barik. Sentsoreen, errendimendu fisikoko softwareen, ibilitako distantziak neurtzeko GPSaren eta bideon bistartzearen bidez datuak lortzea ahalbidetzen dabeen teknologia erabiltzea da. Besteak beste, mobimentuak, erreakzio-denborak, joko-patroiak, pelota-kiroletako karga fisikoa edo indarra, enborren mozketak, gizon-probak, arrauna eta abar zehatz-mehatz aztertzeko eta eba-

luatzeko aukera emoten dabe. Teknologia erabiliz lortzen dan informazio hori berebizikoa da entrenamentuak personalizatu eta lesinoak prebenitzeko. Simulagailuak, errealidade birtuala eta entrenamenterako plataforma digitalak gero eta gehiago erabiltzeak be trebetasun teknikoak modu seguruan eta kontrolatuan garatzea ahalbidetzen dau. Illo horretan, indarra eta mobikortasuna oinarritutako entrenamendu funtzionalak balioa hartu dau.

>>>

Teknologia erabiliz lortzen dan informazio hori berebizikoa da entrenamentuak personalizatu eta lesinoak prebenitzeko

Sustabizeko kirolariak errendimendua hobetzeko entrenamendu batean. Argazkia: Nueva Europa



SUSTABIZ Fundazioak dagoeneko bere atleten prestakuntzan integratzen dau.

Beste gai garrantzitsu bat materialen barrikuntza da, kirol eta kirolari bakoitzerako tresna eta ekipamentu arinagoak, ergonomikoagoak eta egokiagoak sortu dauz eta. Hauek landa-estetikaren funtsa mantentzen dabe eta mobikortasuna, aireztapena edo kirolariaren babesa hobetzen dabe.

Kirol-teknifikazioaren eta etenbako hobekuntzaren testuinguru horretan, entrenamentua espezializatuagoa bihurtuz, errendimentu handiko prozesua garatzen da. Etapa hau 15 urtetik aurrera hastea gomendatzen da, kirolaren, personaren heldutasun fisiko eta psikologikoaren eta esperientziaren arabera. Etapa honen aurretik, funtsezkoa da kirolaria hastapen- eta garapen-fase batetik igaro izana, teknifikazioak entrenamentu intentsiboagoak eskatzen dauzelako. Aldi horretan ikuspegi tekniko-taktikoak, errendimentuaren analisia eta makinaren erabilera progresiboa be landu behar dira. Hemen teknologiak funtsezko zeregina betetzen dau jarrera, mobimenduaren mekanika, erabakiak hartu edo erresistentzia fisikoa bezalako arloetan.

Elikadura adimentsua be ezinbesteko oinarria da kirol-garapenean. Hazkundera eta errekupeazino errazteaz gain, errendimentua, kontzentrazioa eta erresistentzia be hobetzen dauz. Entrenamentua zorrotzagoa dan heinean, elikadura egokitu egin behar da kirolariaren behar energetikoak asetzeko; izan be, kirolariak oreka mantendu behar dau muskulu-masaren eta gorputz-koipearen artean, eta hidratazino eta muskulu-birsorkuntza optimizau behar dauz. Horregaitik, tekni-

fikazio-etapan, kirol-nutrizionista baten aholkularitza izateak alde handia eragin daike.

Funtsezkoa da herri-kiroletan ikerketa, barrikuntza eta teknologia aplikatzearen emaitzak ezagutzera emotea, bereziki aldizkari zientifiko ezagunetan zabalduz. Argitalpen horreek unibersidade-programak aberasteaz gain, entrenatzaileak, fisioterapeutak, federazioak eta kirol-politiken arduradunak be erabiltzeko balio-garriak dira. Herri-kirolak esparru zientifikoan sartzea aurrerapauso garrantzitsua da: azterketa-eremu serio lez legitimatzen dau, eta bide barriak zabaltzen dauz ikerketarako, garapenerako eta praktika hobetzeko.

IKASGELATIK

Herri-kirolen ezarpen sozial eta akademikoa funtsezkoa da gure herri-kirolen etorkizun iraunkorra bermatzeko. Hauek, eskola-kirolean, udal-kiroldegien eskaintzan edo Unibersidadeko Hezkuntza eta Kirol Fakultadeen programetan sartuta dagoz jada. Ildo horretan, SUSTABIZ Fundazioak lankidetzat-hitzarmen bat dauko Deustuko Unibersidadeagaz, eta, horren bidez, herri-kiroletako eskola teorikoak eta praktikokoak emoten dauz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduko

BIGARREN mailan. Gainera, bere Gernika-Lumoko egoitzan hastapen-saioak eskaintzen dauz ikastetxeentzat eta Jardunaldi Partehartzaileak be fundazinoko kideak diran Bizkaiko hogei udalerritan.

Geure herri kirolen balioa nabarmentzeko eta etorkizuna eraikitzeko beste mugarri garrantzitsu bat teknologia barritzailez hornitutako Euskadiko lehen Herri Kirol Zentroa Bilbon zabaltzea izango da. Bilbao Kirolak-ek sustatuta (Bilboko Udala), Bizkaiko Foru Aldundiaren, Bizkaiko Euskal Joko eta Kirol Federazioaren, SUSTABIZ Fundazioaren eta Bilboko Txirrika Herri Kirol klubaren laguntzagaz, maila altuagoan lehiatuko diran kirolariak prestau gura dauz

Herri-kirolen bilakaera, neurri handi batean, eskubide osoz eta baliabide guztiekaz XXI. mendean sartzearen aldeko erakunde apostuaren mende dago. Horretarako, premiazkoa da teknologia, barrikuntza, teknifikazio progresiboa eta nutrizino-programa espezifikokoak integratzea. Faktore horreek, plangintza arduratsuagaz batera, herri-kiroletako kirolari osoagoak, osasungarriagoak eta lehiakorragoak prestatzeko aukera emongo dabe, gero be gogoratuak izateko, geure kulturari eta tradizioei uko egin barik.

>>>

Errendimentu handiko etapa 15 urtetik aurrera hastea gomendatzen da, kirolaren, personaren heldutasun fisiko eta psikologikoaren eta esperientziaren arabera



Sustabiz Fundazinoko Herri Kirolen Zentroa, entrenamentu saioa. Argazkia: Nueva Europa



JOSEBA ETXEBARRIA,
Sustabiz
Fundazinoko zuzendaria

Aitzindariak al zarie teknologia eta errendimentua kontrolatzeko aparatuak sartzen dauzen kirol-entrenamentuaren eredu modernoa aplikatzen?

Edozein kirol-diziplinan eskaintzen diran entrenamentu zerbitzu globalizatu, espezializatu eta normalizatuak ez dira existitzen izan Herri Kirolen esparruan. Sustabiz Fundazioa 2023an sortu zan Herri Kirolen diziplina desbardinak sustatzeko. Bere egoitza Gernika-Lumon dauko eta proiektzioa Busturialdea-Urdaibai eskualdean dauko. Instalazio egoki bat, entrenatzaile trebatu batez, esperientzia, material egokia eta abar daukoz, erabiltzaile mota guztiei zerbitzua emoteko, aukeratutako Herri Kirol modalidadearen araberrako kuotekaz.

Zelan emoten da herri kirolen ikuspegi barri baterako pausua?

Jarduerak antolatzean, Herri Kirolen modalidade desbardinatoko entrenamentu zerbitzua emotean eta egunez egun hobetzean lortu dogun esperientziak, proiektuaren hazkundera ikusaraztera eraman gaitu. Oinarri horretatik abiatuta, Gernika-Lumo eta Busturialdea-Urdaibai eskualdea Bilborantz igarotzeko estrategia bat aurreratu dogu. Epe laburrean Bilboko Herri Kirol Zentroa zabalduko da. Hau Bilbao

Bilboko zentroa zabaltzeak beragaz ekarriko dau entrenatzaile eta monitore espezializatu barriak prestatzea, eskari barriari modu profesionalean erantzuteko

Kirolaren apustu aitzindaria da, gure barne egituraren aldaketa batzuk sartu eta Herri Kirolen munduko eremurik ahulenean, HEZIKETAN, geure burua berrazmatzea dakarrena. Bilboko zentroa zabaltzeak beragaz ekarriko dau entrenatzaile eta monitore espezializatu barriak prestatzea, eskari barriari modu profesionalean erantzuteko.


Asmo handiko kirol-proiektuaz ari gara, batez be. Sustabiz Fundazioaren filosofiatik, entrenatzaile barrien prestakuntza da proiektuaren biziraupenerako eta arrakastarako bidea. Proiektuari buruz berba egiten dogunean, zentzu zabalean da, ez dogu muga geografikorik planteatzen, Herri Kirolen praktikarekiko interesa dagoen edozein lekutan planteatu daitezke zentro barriak. Gure ustez, aukerak emoten badira, praktikaren aldeko erantzun interesgarriak egongo dira.

Zein da Sustabiz Fundazioaren etorkizuna?

Entrenamentuko "oinarrizko" zerbitzu bat idazten ari izatetik, analisi formalizatu, profesional eta barritzaile baterantz eboluzionau dogu, "errendimentu altuaren" profila be lortze aldera. Horretarako, ezinbestekoa da teknologiaren, barrikuntzaren eta arlo horreetan adituak diran profesionalen eskutik joatea. Horrela, geure modalidadeetan existitzen ez diran datuen bilketaren munduan murgiltzeko, horrek piztu daikeen interesagaitik publiko gehiago erakartzeko asmoz.

>>>





IKER LOPEZ,
Baigeneko* kirol arduraduna
eta prestatzaile fisikoa

‘Baigene euskal enpresa 2013an sortu zan, kirol-errendimentuan bikaintasuna lortzeko eta persona bakoitzaren informazino genetiko bakarraren bidez ongizate eta bizitza osasuntsu handiena lortzeko helburuagaz. Ikerketa, azken aurrerapenak, teknologia barriak eta arlo bakoitzeko aditu onenak dira Baigeneren oinarria. Baigeneren ikerketa DNAr buruzkoa da, eta, helburu barriak lortzeko, etenbako ikerketa-ekintzak egiten dauz ospe handiko erakundeekaz, esaterako kirolagaz eta medikuntzagaz, diziplina anitzeko ikuspegitik, erakunde publikoe-kaz eta enpresa pribatuekaz.

Enpresa laguntzaile moduan, zertan datza eta zer eskaintzen dau BAIGENE metodoak SUSTABIZ Fundazi-noko atletak prestatzeko?

Baigene entrenamentuaren indibidualizazioan eta osasu-nerako errendimentuan oinarritzen da. Lehenik eta behin, analisi genetikoa egiten da, kirolari bakoitzaren errendi-mentuari begira aldagai desbardinekiko alde zurreko jarrera ikusteko, eta, ondoren, muskulu-mailan beste test mota bat egiten da, muskuluen oreka ikusteko eta entre-namentu indibidualizatuagoa planteatzeko.

Zientzia da errendimentuaren gakoa?

Modu indibidualizatuagoan, entrenamentua zientzian eta esperientzian oinarritzen dogu, urte asko baitaramatzagu goi mailako kirolariak entrenatzen. Indarraren entrena-mentuan zientzian oinarritzen gara, maila fisiologikoan, biomekanikoan eta neurologikoan. Gure lana muskulu-tal-de bakoitzari ahalik eta etekinik handiena ateratzera bide-ratuta dago, bai maila metabolikoan, bai tensino-mailan, hau da, indar-mailetan muskulu-talde bakoitzaren funt-

zionaltasuna hobetzen saiatzen gara, ahalik eta gehien konpen-tsatuta. Horretan bereizten gara, ez dogu keinu teknikorik ko-pia- tzen pisu erantsi bategaz, keinu tekniko bati aplikautako indar bat lantzen saiatuz. Teknika lehiaketan egiten dan moduan lan-tzen dogu.



Sustabizeko kirolariak errendimentua hobetzeko entrenamentu batean.
Argazkia: Nueva Europa

>>>



INHAR URRUZUNO,
Sustabiz Herri Kirol Zentroko
entrenatzailea

Noiztik egiten dozu harri-jasotzea?

Nire ibilbidea 16 urtegaz hasi neban kirol honetan, eta adin hori ezin hobea iruditzen jat hasteko. Orain, 38 urtergaz, nire ibilbidearen azken txanpan nago.

Ordutik, zer bilakaera izan dozu Herri Kirolen munduan?

Kirola bera ez da ia aldatu. Asko aldatu dana kirolarien profila da. Orain dala gitxira arte, pandemiaren aurretik, gehienak landa-mundutik eta kirolean tradizioa jarraitzen ebeen fa-milietatik zetozen. Orain, zorionez, hori aldatu egin da, eta profil desbardinak ikusten doguz. Era berean, azpimarratze-

Iturriak:

- 2/2023 LEGEA, martxoaren 30ekoa, Euskadiko jarduera fisikoaren eta kirolarena.
- Basque team
- Kirolbide PRO
- Berrikuntza eta teknologia berriak euskal kirol estrategikoetan, (KIROLAREN IV. EUSKAL BILTZARRA)
- Baigene
- Sustabiz Fundazioa
- Newsweek

MIREN GARAY **UM**

GURE KIROLAK ETA KULTURA DIREN
HERRI KIROLAK SUSTATUZ



Ezagutu Gaitegiz Arteaga
pausoz pauso



kulturklik

**KULTUR AGENDA OSOA
ATARI BAKAR BATEAN**



**AURKITU
EZAZU ZUREA**



EUSKO JAURLARITZA  GOBIERNO VASCO

PUBLIERREPORTAJEA



AJANGIZKO
UDALA

AJAN-ARGI KOOPERATIBA MARTXAN DAGO

Ajangizko Udalak aldaketa Klimatikoaren ondorioak gutxitzeko asmoz energia barriztagarri eta garbietan oinarritutako irtenbideak lantzen dago. Horrela, Ajan-argi Kooperatiba eratu da herrian 27 partaideekaz eta Udala bazkide laguntzaile izango da. Helburua da eguzkiak sortzen dauen energia aprobetxatzea, autokontsumoa asetzea eta kostu ekonomikoa murriztea. Barrizar enpresaren laguntzagaz, Kultur Etxeko eta Frontoiko teilatuak erabiltzea erabaki da sistema fotovoltaiko bat instalatzeko. Guztira 124 eguzki modulu ipiniko dira, 37 Kultur Etxean eta 87 frontoian. Sare elektrikora konektutako autokontsumoa partekatua izango da eta energia barriztagarri nahikoa sortzen ez dan aldie-tan, sare elektrikorako konexinoa bermatuko da. Energia soberakina sarera injektauko da. Proiektuaren aurrekontua 86.996,13€koa da eta Udalak lizitazioa prestatzen dago. Ajangizko Udalak Foru Aldundiaren %95ko dirulaguntza lortu dau (82.646,32€). Ajangizko herriak bere hondar alea jarriko dau natura eta ingurumena zaintzeko.



ARRATZUKO
UDALA

HERRI KONEKTAU ETA JASANGARRI BAT

Arratzuko Udalak bizikletak ixteko aparkaleku bat jarri dau erdiguneko Loiola plazan, aparkalekua antolatzeko eta herri-rira askotan joaten diran zikloturistek etxebizitzaren gunera doan bidea errespetatzea daiezan bermatzeko. Gainera, hone-gaz mobikortasun iraunkorra eta guztiontzako irisgarritasuna sustatzen laguntzen dauen udal-azpiegitura barri bat eskaintzen da. Proiektu hau 2010ean hasi zan, bidegorrien tarteak diseinatu eta faseka eraikitzeagaz. Ibilbidearen puntu desbardinetan argiztapen ona, iturriak eta bankuak egin ziran. Guztia, bi gurpilen gainean mobitzeko sare se-guru eta eroso bat ehundu arte. Gaur egun, udalerrri osoa alkarri lotuta dago, eta bizikletaz erraz iristeko eta hauek aparkatzeko leku egokiak daukoz. Herria zeharkatzen dauen buelta zikloturista tradizionalerako pasabide izateaz gain, udalerrria naturaz, ondareaz eta inguruko lasaitasunaz goatzeko helmuga ezin hobea bihurtu da. Gernika-Lumotik 8 kilometrorra baino ez dago, eta aukera ezin hobea da ai-sialdia, kirola eta ingurumenarekiko errespetua uztartu gura dabenentzako.



BUSTURIKO

UDALA

MAPE IBAIAREN ETA BERE INGURU-NEAREN LEHENERATZE EKOLOGIKOA

Busturiako Udalak, URAgaz daukon lankidetzaz-hitzarmenaren esparruan, eta natura babesteko, baliabideak arduraz kudeatzeko eta garapen iraunkorra sustatzeko jarduerak politikari jarraituaz, Euskal Herriko Unibersidadearen aholkularitzagaz, Mape ibaiaren ingurua leheneratzeko proiektua bultzatu dau Alarbin parean. Helburua da paisaia hobetzea, biodibersidadea sustatzea eta herritarrentzat eremu irisgarriagoa eta atseginagoa sortzea. Mape Urdaibaiko Ibai Sarean eta Konserbazino Bereziko Eremuan (ES2130006) sartuta dago. Aurreikusitako jarduketaren artean honako hauek dagoz: ur-emaria neurtzeko estazio zaharra eta jauzi artifiziale kendu, Mapeko beheko zatia arroaren ibai-sareagaz barriro konektatu, ibai-bokaleraino; harri-lubeta, ezpondaren linea eta ertzak naturalizatu, bai eta emariak ijezte eta flotatzailak bahitzea be. Neurri hauek ibaian behera uholdeak izateko arriskua murrizten lagunduko dabe (Altamira/San Kristobal). Lan horreerako inbersinoa 192.635,74 €-koa da.



EREÑOKO

UDALA

ATXOSTE BARRIRO URBANIZAU ETA IRISGARRITASUNA HOBETU

Ereñoko Udalarentzat irisgarritasuna eta bide-segurtasuna lehentasunezko gaiak dira eta, ildo horretan, Basetxetas auzoko Atxoste ingurua barriro urbanizatzeko proiektua jarriko dau martxan. Jatetxearen ondoko bidekurutzea amaitu, egokitu eta berrantolatzea da helburua. Baita be, Ereñorako norantzan bukatu bako espaloia-aren luzapena auzoko 2. eta 6. etxebizitza isolatuak konektaturik ixteko. Udal-irisgarritasuna hobetzeaz gain, Atxosteko bidekurutzean egingo dan jarduketak sarbide horren antolamendua hobetzea be ahalbidetuko dau. Gune hau igarobidea da, bertan jatetxe bat dago, Ereñoko erdigunerako saihezbidea eta enpresa garrantzitsu batera daraman saihezbidea be. Bidekurutzea seguruagoa izan daiten, proiektuak barne hartzen dauz eremu honen berrantolaketa eta bertan dagozen espazioen antolamendu hobea egingoa. Espazio horren artean kotxeak aparkatzeko gunea, oinezkoentzako gunea, kargadore elektrikoa eta ibilgailuen joan-etorrirako edota bira emoteko guneak dagoz.



ERRIGOITIKO

UDALA

URAREN KUDEAKETA ERAGINKORRAREN ALDE

Errigoitiko Udalak oraintsu amaitu dau hornidura-sareko hodieetan uraren emaria kontrolatzeko sentsoareak instalatzen. Ur-hodiak digitalizatzeko beragaz dakar sentsoareak bezalako teknologiak integratzea, udal-sare hidrikoaren kudeaketa optimizatzeko, emoiak detektatu, kontsumoaren monitorizazioa egin eta baliabideen kudeaketa eraginkorra barne. Guztira, uraren zikloaren fase guztietako datuak batzeko eta bidaltzeko 5 gailu digital instalatu dira. Sentsoare horreek sare osoko hainbat puntutan instalatu dira. Arria-Bizkaiganekeo hasierako depositutik Olabarriko amaierara arte. Informazioaren jarraipena eta kontrola aplikazio digital baten bidez egingo da. Udal-langileek denbora errealean ezagutuko dabe herriko hodi-sarearen egoera. Horrela, uraren kudeaketa iraunkorrean eta klima-aldaketaren aurkako borrokan sakondu ahal izango dau Errigoitik. Sareen kudeaketan eraginkortasun-maila eta kalidade-kontrol handiagoak bilatzen lagunduko dauen tresna da. Udalaren inbersinoa 16.758,50 eurokoa izan da.



FORUKO

UDALA

TRIÑEKO ERMITA, GUZTION ONDAREA

Foruko Triñe baseleiza barritzau egin da, bere konserbazino bermatzeko eta kanpoko irudia hobetzeko. Foruko Udalak, bere tokiko ondarea bizirik mantentzeaz arduratuta, Gondra Barandiaran eta Juan Telesforo de Arceche Fundazioekaz kudeatu dau parrokiak lanak burutzeko behar eban kapitalaren ekarpena. Triñe izenez ezagutzen dan San Gregorio ermita balio handiko ondare arkitektoniko eta historikoa da, eta ikur enblematikoa Forun. Urteetan zehar tradizio eta jai desbardinen lekuko izan da, eta gaur egun be hainbat ospakizun erlijioso eta herriko ekitaldien topagune da. Bere arkitekturak landa-ingurunekeo ezaugarriak gordetzen dauz, fatxada xumea eta landatarra, baina atsegina. Halanda be, denboraren poderioz eta ondoko baserrian izandako sute baten ondorioz, egitura hondatu egin zan, eta teilatua nabarmen hondatu zan. Kanpoko konponketa-lanak fatxada pintatzea eta saneatzea izan dira, besteak beste. Lan guztietan jatorrizko eraikuntzaren benetakotasuna mantentzen saiatu dira.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

HERRIKO PLAZA BARRIAK ONDARE-HARRIA ERAKUSTEN DAU

Gautegiz Arteagako Andrabide harrobia Bizkaiko Ondare Historiko izendatua dago eta Euskadiko Geologia interesdun Lekuen parte da. Gainera, bere harriak, Ereño Gorria edo Bilbo Gorria izenez ezaguna, Nazioarteko Ondare Harria izendapena dauko. Harri berezi hori erromatarren garaian beustiatzen zan. Errekonozimentu hori eta Andrabide harrobia- ren garrantzia zabaltzeko, Gautegiz Arteagako Udalak harri horren pieza bat jarri dau Herriko Plaza barrian. Bertan, plaka batek harriko garrantziaren barri emoten dau. Kolore gorri biziak egiten dau berezi harria. Bizkaian Gautegiz Arteaga udalerrian dago harri gorriko harrobi handiena: Andrabide Harrobia. Bizkaian, penintsulan eta munduko beste leku askotan kareharri hau erakusten daben eraikin enblematiko asko dagoz, esaterako, Arriaga Antzokia. Gune honen garrantziaren adierazle 2025eko Ondarearen Europako Jardu- naldien bisita gidatuen programaren parte izan dala da, eta balioa emoteko plan bat dagoela.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

URTE OSOAN KIROLAZ GOZATZEKO GUNEA

Gernika-Lumoko Udalak amaitu dauz Zearretako kirol- pistan estalkia jartzeko lanak. Helburua eskola-kirola urte osoan zehar egitea bermatzea da. Lanak garatzeko 648.700,60 €-ko inbersinoa behar izan dau udalak, eta Allende Salazar eskolako eta Seber Altube ikastolako 1.500 ikasleei egingo deutse mesede. Ikasle hauek egunero erabiltzen dabez instalazino horrek. Pistak eskola-orduetatik kanpo eta aste- buruetan egongo dira zabalik be. Zearretako azpiegitura bi mailatan banatzen da. Goiko aldean, frontoia (800 m² koa). Honek lehendik zeukan estalkia. Beheko mailan, estalitako bi saskibaloi-kantxa egin dira (1.000 m² koak). Bertan be, aire zabaleko areto-futboleko zelaia barritzau da (1.200 m² koa). Frontoiarene eta kantxen artean harmailak jarri dira (300 m² koak), kirol jarduerak erosoago jarraitzeko aukera eskeiniz. Kirol-pisten inguruko perimetro-itxiturak instalazinoak ba- besten dauz. Estalki barriaren inaugurazino ekitaldian Loin- tek Gernika Bizkaia taldeko jokalaria izan ziran protagonis- tak.



IBARRANGELUKO

UDALA

BIDE-SEGURTASUNA ETA HERRIKO IRISGARRITASUNA HOBETUZ

Ibarrangeluko Udalak hainbat jarduera egingo dauz herri- tar guztien segurtasuna bermatzeko helburuagaz. Ibae- ta, Akorda eta Elexalde auzoetan abiadura-erreduktoreak jartzea izan da dagoeneko gauzatu diran neurrietako bat. Bertan, Berlingo kojiniteak, behearauneak, jarri dira. Hauek ibilgailuak abiadura moteltzera behartzen dabez. Irisgarrita- sun-neurriei dagokienez, Udalak espaloiak jaisteko asmoa dauko Ibaeta eta Ibinaga auzoetako oinezkoentzako hainbat puntu eta pasagunetan. Hirigintza-oztopoak kentzea fun- tsezkoa da persona guztiak errepidearen alde batetik bes- tera arazo barik pasau ahal izango dirala bermatzeko. Neurri horrek bereziki laguntzen deutse gurgil-aulkia erabiltzen daben personei edo mobitzeko zailtasunak daukozenei, bai eta haur-kotxeak edo zama-orgak gidatzen dabezenei be, eta, ondorioz, komunitate osoari egiten deutso mesede eta irisgarritasuna bermatzeko laguntzen dabe. Guztia, uda- lerriko bizi-kalitatea hobetzeko.



KORTEZUBIKO

UDALA

HOBKUNTZAK SANTA ANA AUZOKO BIDEETAN

Kortezubiko Udalak, udal bideak apurka-apurka hobetze- ko daukon konpromisoaren esparruan, Santa Ana auzoko Markopollo bidea eta Gallibiker bidea hobetzeari ekingo deutso. Helburua da bide horreen konserbazino hobetzea eta herriko bideetan kalidadezko irisgarritasuna bermatzea. Legegintzaldi honetako helburuen barruan, konserbazi- no-egoera okerrenean egozen udalerriko landa-bideetan konponketa-lanak egiteko beharra aurreikusi zan, eta, den- boraren poderioz, zoladuran eta hainbat puntutan ur-bilke- tan gabeziak daukozen eremuetan hasiko da. Markopollo bidean Abarsolo bidegurutzeraino doan zatian eta Gallibiker bidean egingo dira lanak, Arratzuko mugaraino doan zatian. Lan horreen artean egongo dira hormigoizko lauza sanea- tzea, arekak garbitzea, drainatzea hobetzea, zorua presta- tzea eta asfaltatzea. Obrek hiru hilabeteko epea daukee, eta, bitartean, zirkulazino eten beharko da. Lanak 169.218,50 euroan esleitu dira, eta udalak Bizkaiko Foru Aldundigaz 60.000 euroko dirulaguntza kudeatu dau.



MORGAKO
UDALA

ERAIKIN MODERNOAGOA, FUNTZIONA-LAGOA ETA IRAUNKORRAGOA

Morgako Udalak bizilagunentzako bi eraikin garrantzitsu birgaitzeko proiektua jarri dau martxan: Kulturetxea (honen barne kultur etxeaz gain, farmazia eta ile-apaindegia zerbitzuak dagoz) eta ondoko biltegia, Andra Mari auzoan, herriko erdigunean. Helburua bi eraikinen birgaitze energetikoa da, fatxada aireztatu bat instalatuz. Honek iragazgaiztea, egokitzapen akustikoa eta isolamendu termikoa hobetuko dauz. 2050erako Klima Aldaketaren Euskal Estrategiaren jarduera-ildo nagusietako baten barruan sartzen dan ekintza da. Helburua da eraikina iraunkorragoa eta funtzionalagoa izatea, eta hobeto egokitzea udal-erabilera eta zerbitzueta- ra, denda txiki baterako espazioaren aurreikuspena barne. Eraikinek diseinu garaikidea eta koherentea izango dabe, moltso arkitektonikoaren bateratasuna indartuz. Morgako Udalak 165.112,61€ inbertiduko dauz proiektu honetan eta horretarako Eusko Jaurlaritzaren bi laguntza kudeatu dauz, bata EREIN programarena (37.551,21€) eta bestea LEADER programarena (57.626,58€).



MURUETAKO
UDALA

“AUZO BATZARRAK”: DENOK BATERA MURUETA AURRERA

Muruetako Udalak pausu barri bat emongo dau herritarren parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzeko, “auzo batzarrak” izeneko ekimenaren bitartez. Udal-gaiei buruzko bilera zabal horreen helburua da herritarrekaz harreman personala eta zuzena izatea; auzoetako bizilagunen ideiak, eretxiak, kezak eta proposamenak entzutea; udal-jarduerak eta -proiektuak bertatik bertara azaltzea; kontuak emotea; eta kudeaketa publiko zintzo eta eraginkor baten alde egitea, udalaren eta herritarren arteko lankidetzan, desbarden arteko lana sustatuz. Horregaitik, batzar edegiak egingo dira udalerriko hiru auzoetan: Kanpantxuan (Eskola Zaharra), Goierrian (Goierrri Aurreko lokala) eta Larraben (Flores Etxea). Muruetako bizilagunek herriaren hobekuntzan parte hartze-ko aukera izango dabe. Guztia Muruetako Udalak herritarren parte-hartzea eta lankidetzaren sustatzeko eta herritarrekiko gardentasuna areagotzeko daukon konpromisoaren parte da. Ekimenak herritarren ahalduztzean eta herriaren kohe- sinoan eragin gura dau.



Zuen txoko gogokoena

Gure irakurleek euren eretxia emon dabe. Zenbaki honetan Urdaibai-Busturialdeko zuen txokorik gogokoena zeintzuk diran adierazteko eskatzen geuntsuezan. Paisaiak, ikuspegiak, monumentuak, herriak... oparitzen deuskuzen aukera amaibakoen artean. Busturiko San Antonio hondartzak eskaintzen dauen panoramiketako bat eta Eako Natxitua auzoaren landatartasun lasaia izan dira aukeratuak.

San Antonio, bestelako begirada

Edozein urtaro opari bat da ikusmenarako. San Antonioko hondartzak, ia 20.000 metro karratuko hareatzagaz itsasbehean eta berde, padura eta kresalaren arteko konbinazinoagaz, deskribatzen zaila dan lasaitasun harmonikoa eskaintzen dau. Gure irakurlearen aipamena Sandindere irlaren eta Gamelu izenez ezagutzen dan haitzaren arteko panoramika izan da. Laidara begira



San Antonio hondartza. **Argazkia:** Nueva Europa

Enkoadraketa perfektua da. Izaro irla sortzen da, ikusteko zain balego bezala. Nabardura-sortak, aberastasun kromatikoak lekua hartzen dau barealdian. Urdaibaiko estuarioaren bi aldeek ikuspegi desbardi-na eskaintzen dauen paisaia "sasi-basati" honetan begirada galtzen itxi daiegu.

Sandindere irlak, hareatza honetako zaintzaileak, bere izaeragaz laguntzen dau. Artadi-baso korapilatsua da bere nortasun-ikurra. Irlatxo horren ondoan, ezebezetik bezala agertzen da, harkaitzeko eraketa bitxi bat, "gamelua" izenez ezaguna, Laidara begira dagoen eta Izaro

uren artean aurkitzen dauen gunee zabal batez.

"Gamelua" osatzen daben arroken artean, batez be haize-egunetan babes bilatzen da. Baina arroka hauek historia geologiko bitxia dauke. Izatez ofita bat da, Triasikoko harkaitz subbolkaniko bat. Bere gainazalak narrastien larruzala gogorarazten dau. Bere kolore berdexkak gainerakoengandik bereizten dau. 200 milioi urte baino gehiago dauko, eta bertako arrokarik zaharrena da. Jatorrian, 4 metroko altuerako harri bakarra zan, eta 1923an, goikaldea dinamitu eben. Kolonietako neska-mutilak hainbesteko altuerara igotzeko arriskua saihesteko.

Natxitua, intimidade kromatikoa

Espazio zabala, lasaia eta izaera handikoa, jendetzaren zaratatik urrun. Natxitua bere txoko gogokoena aukeratu dauen irakurleari ez jako arrazoirik falta. Hemen paisaiak lasaitasuna eragiten daben bariedade kromatikoa eta harmonia eskaintzen dau.



Natxitua. **Argazkia:** Nueva Europa

Eako erdigunetik 3 kilometrora, gainetxu batean, Natxitua auzoa ageri da distira osoan, nolabaiteko kutsu kostunbristagaz. Goikaldean, errepidea erditik doala, plaza eta Kontsolazioko Santa Maria eleiza dagoz. Elizpe bikaina nabarmentzen da bertan.

Bere zelai berde eta zabalak, gaur egun bere landa-izaera baketsuaren ezaugarri

diranak, ozta-ozta iradokitzen dabe base-ria ekonomiaren ardatza zan garaiko nekazaritza eta abeltzaintzako jarduera bizia. XV. mendean Natxitua udalerria izan zan, eta Ea, udalerriari eta egungo erdiguneari izena emoten deutsona, herriko arrantza-leak bizi ziran auzoa zan.

Natxitua bisitatzen badozu, ezin dozu galdu Iturriñako garbilekua, tokiko onda-

re-ondasun izendatua. Bertara iristeko, Eako Lapatzara jaisten dan bidea hartu behar dozu (ezkerretik Angelutxutik Natxituara). Garai batean inguruko emakume-entzako topaleku bezala erabiltzen zan, arropa garbitzera hara joaten ziran eta.

LAURA PÉREZ **UM**



% 100 URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorcioideaguas.eus

bisita
gidatuak

Kultura
Natura
Ondarea
Turismo Jasangarria



 **Visit Urdaibai**
© bai Nueva Europa

VISIT
GERNICA



www.visiturdaibai.com
634 243 762  [visiturdaibai](https://www.instagram.com/visiturdaibai)




KANALA
B E A C H

AUTORE SUKALDARITZA
ETA PRODUKTUARI
KULTUA URDAIBAICO
BIOSFERA ERRESERBAN

Erreserbak:
www.kanalabeach.eus
+34 94 402 53 69

Trenak ekarritakoa



Trena Busturialdetik igarotzen. **Argazkia:** Nueva Europa

Trenak garrantzi handia izan dau historian zehar, eta gaur egun be horrela jarraitzen dau. Bere onurak eraginkortasun energetikoa eta jasangarritasuna, puntualtasuna eta garapen ekonomikoari egindako ekarpena dira. Iraunkortasunaz eta eraginkortasunaz gero eta kezkatuago dagoen mundu honetan, trenak berebiziko garrantzia izaten jarraitzen dau garraioaren bilakaeran, eta Busturialdea-Urdaibaik badaki hori.

Trena Gernika-Lumora iris-teak eskualdeko eguneroko bizitzaren, industriaren eta aisialdiaren arlo askotan erreboluzioa ekarri eban. Eraldaketa ekonomikoa ekarri eban eta merkataritza eta garraioa erraztu ebezan. Gaur egun, mende bat baino gehiago geroago, inbersino balio-tsua dala erakusten jarraitzen dau. Jasan-

garritasunaren garaia abangoardian dago, eskualdearen etorkizunagaz lotura eztaba daezina.

GERNIKA-LUMOKO GELTOKI BARRIA: ETORKIZUNeko INBERSINOAK, GAUR
Trenaren erabiltzaileek dagoeneko estreinatu ahal izan dabez instalazio berriak, trenbidearen gaineko pasabide batez, segurtasun handiagoa emoten dauena eta geltokiari modernotasun kutsua emoten deitsona. Urriko Azken Astelehena izan da proba ezinhobe, egun horretan

garraio publikoa erreferentzia eztaba daezina dalako azokaz gozatzen Gernika-Lumora hurbiltzen diran milaka pertsonentzat.

Atari barria Bermeorako nasan dago, trenbidearen egungo terminalaren eta autobusen terminalaren artean, biltegiko eraikinak lehen okupatzen eban oinplano espazioan. Atariak bi sarbide simetriko dauko, bata eraikin historikoaren ondoan eta bestea autobus geltokiaren ondoan.

Diseinuak segurtasuna, abangoardia eta estiloa uztartzen dauz. Horrela azaldu eban Azpiegituretako eta Mobikortasun Jasangarriko sailburorde Miguel Ángel Páezek geltoki barriaren inaugurazio-bisitara, *"Atari barriaren helburua hirigintza arloko integrazioa eta trenak inguruan daukon inpaktu bisuala eta akustikoa murriztea da; trenbidearen, katenariaren eta seinaleztapenaren barrikuntzek, berriz, Gernikako trenbide-azpiegitura funtzionamendu-egoera ezin hobean itxi dabe daitozen hamarkadetarako"*.

Obren ondorioz, nasen arteko trenbide-pasagunea kendu da, trenbidearen gainean pasabide bat eta dagozkion igo-gailu egokituak eta eskailera finkoak eraikitzen, erabiltzaileek trenbide-plataforma gurutzatzea saihesteko eta haren segurtasuna bermatzeko.

Altzairu herdoilgaitzeko egitura dauko eta estalita dago. Era berean, malda txiki-ko ibilbide irisgarriak eta irteera gehigarri bat diseinatu dira, autobus-terminaleko lorategiaren ondoan, ekitaldi handien une jakin batzuetarako. Eraikin historikoa mantendu egin da, baina ez da erabiltzen bi-daiarientzako eraikin moduan.

Atariko espazioaren inguratzailea beirazko fatxada da gehienbat, eta horrek argi naturala hornitutako eremu atsegina emoten deitso erabiltzaileari, eta, aldi berean, eraikinaren presentzia fisikoa minimizatzen dau Loizaga kalean zehar, eta horrek inpaktu bisual handia saihesten dau. Sarbide mugatuko espazioen kanpoko inguratzailea, gela teknikoak, besteak beste, fatxada opakuak dira.

Atarien funtzio nagusia bidaiariei txartelak saltzea eta garraio-zerbitzura sartzen diran pertsonen trafikoa kontrolatzea da. Nasei dagokien, dagoen luzerari eusten joko eta 25,50 metroko luzera, seinaleak eta altzariak daukon markesina bat instalatu da nasa bakoitzean.

10 MILIOIKO INBERSINOAK ADARREAN

Bost milioi euro inguruko aurrekontua izan dauen jarduketa Eusko Jaurlaritzako Mobikortasun Jasangarriaren Sailak azken

Gernika-Lumoko geltoki barria, trenbidearen gaineko pasabide bat eta dagozkion igo-gailuak eraiki dira, segurtasuna bermatzeko

urte honetan Gernika-Lumon gauzatu dauen garrantzitsuena izan da, baina ez bakararra. 2024an, Euskal Trenbide Sareak 5 milioi euro inguru inbertitu dau Amorebieta-Bermeo adarreko trenbide azpiegiturak hobetzeko, Gernika-Lumoko geltokiaren inguruetan batez be. Lanetan super egitura erabat barritu da. Aparteko esku-hartzeak dira, 25 urtean behin egiten diralako, baina guztiz beharrezkoak zerbitzuaren segurtasuna eta kalitatea bermatzeko.

Jarduketa hauen artean, trenbidearen barrikuntza, elektrifikazioa eta seinaleztapena nabarmentzen dira. Gaur egun, Gernika-Lumoko geltokiak bi nasa dauko, biak 1. eta 2. trenbide nagusien alboetan. Modu berean, unidadeak ixteko erabiltzen diran hiru maniobra-trenbide dagoz, eta geltokian bertan dagoen tailerretarako sarbidea emoten daben beste lau trenbide osagarri.

Elektrifikazioari dagokionez, katenariako ekipamendua eraberritu da eta trenbideen konfigurazioa berritu da. Horretarako, zutoinetarako, kablea barritzeko eta orratzak muntatzeko zimendu barriak egin dira. Bermeorako adar horren barruan, hainbat eraberritze-lan egin dira Bermeoko geltokietan, sarbidea, arkupea eta nasaren zoladura hobetuta, eta Mundakan, nasa bakoitiko lurzorua ordeztuta eta altzariak instalatu, atzera-argitutako seinaleak jarrita eta nasa bikoitien kanalizazio berriak eginda.

MENDE BAT BAINO GEHIAGO ETA OSASUNTU

Busturialdea-Urdaibaik eskualdeko trenak badauko bere historia. Itsasadarren ezkerrean aukeratu eban garatzeko eta ez zan kasualitatea izan. Baina zelan iritsi zan eta zer da trenak ekarritakoa?

>>>

Gernika-Lumoko pasabide barria eta igo-gailua. **Argazkia:** Nueva Europa





Gernika-Lumoko geltoki barria martxan.
Argazkia: Nueva Europa

Bizkaiko bide estuko lehen trenbidearen finantza-arrakasta zala-eta (Bilbo eta Durango artean zabaldutako linea) 1882an, bide metrikoko beste proiektu batzuk beheratu ziran herri eta eskualde nagusiak Bilbo-gaz komunikatzeko. Trenbidea Durangotik Zaldibarrera eraman 1886an; Bilbotik Aretarainoko trenbidea sartu zuten zerbitzuan 1887an, eta Zaldibarretik Eibarrerako zatiagaz luzatu 1888an trenbidea urte berean.

Gernika-Lumotik Bilbo-Durango trenbideagaz Zornotzan lotura egin ahal izateko tren bat eraikitzea planteatu 1882an. Horren gaineko lehen azterketak 1882ko martxoaren 22an egin ebezen, orduan baimena eman eutsoelako Francisco Rispa Perpiñari beharrezko azterketak egin zitzaizkion.

Rispa eskubideak Luis Landetxo Urries arkitektoari eskualdatu eutsozan eta, eskakizunak gainditu ostean, 1885eko otsailaren 20ko Lege Dekretu bidez eman eutsoen baimena «Estatuaren zuzeneko diru-laguntza barik Zornotzatik abiarazi eta Gernika-Lumon amaitzen dan trenbide ekonomiko bat eraikitzeko».

Kontzesinoa lortu ondoren, *Compañía*

del ferrocarril de Amorebieta a Guernica y Luno enpresa eratu 1885eko uztailaren 17an, 1.250.000 pezeta kapital sozialagaz; kapitala 2.500 akziotan egoan banatuta. Inbersore gehienak garai hartako burgesiakoak ziran, merkataritza lotuak, profesional liberalak, politikariak eta tren barriagaz etekinak atarako ebezen Gernika-Lumoko bizilagunak. Akziodun nagusien artean emakidaduna bera, Luis Landetxo, eta beste pertsona garrantzitsu batzuk beheratu: Urkixoko markesa, Montefuerteko kondea, Manuel Allende Salazar, Antonio Comyn y Crooke, Fernando Landetxo Urries, Manuel M^a Gortazar, Gabriel M^a Ibarra, Pedro Gandarias, Luis Zubiria edo Ramón Bergé, besteak beste.

Enpresa ustiatzailea eratu ostean, trenbide barria eraikitzeko lanak hasi ziran; lanok Pablo Alzola ingeniari ospetsuak zuzendu ebezan, eta Luis Landetxok berak beheratu eban parte geltokien proiektuen idazketan.

Deigarria da Alzolak bide metrikoko trenbide honetan parte hartzea, bera izan zalako kantauri isurialdeko trenbideak bide zabalean eraikitzea gehien defen-

datu eban. Kantaurialdeko trenbidearen proiektua, Santander eta Irun artekoa, bide zabalean, berak egin eban. Halanda be, trenbide barriak Bilbo-Durango trenbidearekiko lotura ezinbestean Zornotzan egin behar ebanez –eta ha bide metrikoko egin egoanez–, bide-zabalea horri eutsi behar eutsoen derrigorrez. Halere, traza, teorien behintzat, galga (trenbidearen zabalerak) etorkizunean aldatu ahal izateko proiektatu eban.

BIDAIATZEAREN DEMOKRATIZAZIOA

Trenbide barria eraikitzeko lanak erritmo onean joan ziran, 1888ko uztailaren 23an Zornotzako eta Gernika-Lumoko geltokien arteko lehen proba-trena ibili ahal izan zuten. Aste batzuk geroago, abuztuaren 13an, trenbide barria ohiko ospeaz inauguratu eban. Garaiko prentsak notizia handiaren barri eman eban. Horrela nabarmendu eban 1888ko uztailaren 24an, inauguratu baino egun batzuk lehenago: “Zornotzatik Gernika-Lumora doan trenbide ekonomikoa ...lau bagoiko trena da. Haietarikoa bat lehenengo mailakoa, beste bat hirugarrenakoa eta gainontzeko biak zama eroatekoak. Lehenengo bietan ingeniariak berak eta bere lagun batzuk

egin eban bidaia. Beste bi horreetan harri-zko ikatza eroateko erabili ziran...Geltokiak eraikitzeko sistema bera erabili da, eta zalantza barik, beraien tamaina, ondo aztertutako zerbitzua eta edertasuna ikusirik, Espainiako beste trenbidetakoak baino hobetoak dira. Gernikakoa ibarrean dago eta hiriko beheko kaletik zientu erdi bat metrora eskas. Bertan Alzola ingeniariak gustu onekoa dala frogatu dau eta eginahalak egin dauz edertasuna erakusteko. Harri landuaz eta sumendiko harriko mo-saiko urdinaz egin dau lana emaitza ederra lortuz. Fatxada nagusian, nasa atzean daukana eta hiriari aurre egiten deitsona, hiriko armarrak dago eta eder-ederra da. Geltoki hau kokatzeko Bermeoraino joan behar dan trenbidearen ibilbide trazaketa kontuan hartu da. Bermeoko trenbide zati hau hiri horretako Manuel Maria de Arrotegui jaun txiki horren ardurapean eraikiko da...”.

Trena, *Isabelita la Koipesta* izenez ezagutzen zuten Gernika-Lumon, Gernikatu izenez be ezagutzen zana, garraio-modua

goitik behera aldatu eban, merkantziak eta personak garraiatzeko irtenbide eraginkorra eta errentagarria eman ebalako. Bidaiatzeko modua demokratizatu eban. Kea botaten eban trenbide hark eragin sozial, politiko eta ekonomiko eztaba-daezina izan eban. Lehenengo turistak eskualdera ekarri ebezan, ondoren Kortezubiko bainuetxera edo Mundakan eta Bermeon bainatzera zihoazen turistak, hain zuzen be.


Trenbide barriaren arrakastaren ondorioz, sustatzaileek trazadura handitu eban Bermeoko arrantza-portu garrantzitsurantz, eta 1893ko martxoaren 15ean iritsi ziran lehen trenak Sukarrietako geltokira (gaur egun, Busturia-Itxasbegi). Halanda be, Bermeorainoko luzapenak zailtasun orografiko handiak eukazan; izan be, itsasertzeko labar malkartsuen gainean jarri behar zuten trenbidea. Hau saihesteko, tranbia xume bat ezarri zuten, mandoen bidez bultzatua (orduan esaten zuten bezala, odol-zeko motorra). Tranbia horrek 1918ra arte ibilbide horretan zerbitzua eman eban.

ETA TRENA BERMEORA IRITSI ZAN

Bermeorainoko linea ez zuten 1955eko abuztuaren 16ra arte amaitu. Sukarrieta/Pedernalesko azken zatia hainbat enpresak eraiki eban, eta horreen artean Banús Hermanos, S.A. nabarmen zuten. Konpainia horrek harreman estuak eukazan erregimen frankistagaz. Erregimen frankistak Barna (Bermeo) parajearen horretarako ezarritako espetze-destakamendu bat bere esku jarri eban. Horri esker, zigorra betetzen ari zuten preso arrunt eta politikoen eskulan merkea lortu eban.

Bermeorako luzapenaren inaugurazio-trena *Alsthom* etxe frantsesaren diesel-lokomotora batek eraman eban, baina urte batzuetan gehiagotan lurrin bidezko trakzinoa mantendu zuten trenbide honetan. Diesel-lokomotorek eta -automotorek lurrin-lokomotorak ordeztu ebezen apurka-apurka 1960ko hamarkadan, eta zerbitzua elektrifikatu egin eban 1973an. Horrek bere iraupena bermatu eban. Eusko Kontseilu Nagusiari 1979an eskualdatu eutsoenez geroztik, moder-

>>>



IGANDE GUZTIETAN ZABALIK

10:00 - 14:00

ARRATZU, Loiola Auzoa

SARRERA DOAN

634 243 762



nizatzeko eta hobetzeko etenbako proze-
sua jaso dau trenbideak EuskoTren eta
ETS-RFV soziedade publikoen eskutik.
Trenaren modernizazioa gaur egunera
iritsi da, eta inbersino garrantzitsuak egin
dira, esaterako Gernika-Lumon inaugurau
barri dan trenbidearen gaineko pasabide
barria, trenak garrantzitsua izaten jarrai
daian, abangoardian eta etorkizunari be-
gira jarrai daian.

BUSTURIALDEA-URDAIBAI TRENBIDE-SAREAN AURREIKUSITAKO BESTE HOBEEKUNTZA BATZUK

Epe ertainera, ETS Euskal Trenbide Sa-
reak enpresak beste 12 milioi euro inber-
tiduko dauz trenbide-zerbitzuaren kalida-
dea hobetzen lagunduko daben hainbat
obra egiteko.

Gaur egun, Euskal Trenbide Sarea Ber-
meoko geltokia erabarritzeko eraikun-
tza-proiektua idazten ari da. Funtsean,
bidaia-terminaleko bihurrunea ezaba-
tuko da, nasa-tren irisgarritasun uniber-
tsala lortzeko eta portuan merkantzia-tre-
nen maniobragarritasuna errazteko.

Obren ondorioz, geltokia atzeraemon be-
harko da, eta, beraz, eraikin barria egingo
da, eta horrek ingurunearen dagokion
urbanizazioa eragingo dau. Lanen fase
guztietan zerbitzua bermatu egin beharko
da, eta, beraz, behin-behineko geroaleku
bat muntauko da egungoaren metro gitxi
batzuetara.

Bestalde, laster hasiko dira Mundakako
biaduktua konpondu eta babesteko la-
nak. Mundaka eta Bermeo arteko bidean,
Lamiarango kalatik 15 metroko altuerara
dago.

Proiektuaren lehen fasean, 2,6 milioi eu-
roko aurrekontuagaz, zubibidea babes-
teari ekingo jako. Horretarako, olatuen
energiatik babestuko dauen hormigoizko
dikey bat egitea erabaki da. Lanak amaitu-
takoan, zubibidea konponduko da.

Bestalde, Sukarrieta eta Bermeo arteko
zatian 7 milioi eurotik gorako trenbidea
barritzea eta Amorebieta-Bermeo ada-
rrean elementu geoteknikoak indartzeko
eta birgaitzeko proiektua gauzatzea au-

rreikusida. Proiektu horren aurrekontua 2
milioi eurotik gorakoa da.


EUSKOTREN, BUSTURIALDEA-URDAI-BAIKO KONEKTIBIDADEA HOBETUZ

2019ko irailaz geroztik, Bermeoko trenak
Bilboko erdigunean dagoen Matikoko
geltokira (metroaren 3. linea) iristen dira,
eta aldaketa horri esker, Zazpikaleak/
Casco Viejo geltokian 1. eta 2. lineak lo-
tzen dira. Ordutik, Bolueta eta Casilla arte-
ko tranbiaren ibilbidearen zati dira Atxuri-
ko eta Boluetako geltokiak.

Gaur egun, E4 Bilbo (Matiko) - Bermeo li-
neak 25 geltoki dauko, honako toki haue-
tan: Bilbo: 6 geltoki (Matiko, Uribarri, Za-
zpikaleak, Zurbaranbarri, Txurdinaga eta
Otxarkoaga); Etxebarri: 2 (Kukullaga eta
Etxebarri); Basauri; Galdakao; Usansolo;
Bedia; Lemoa; Amorebieta; Muxika: 2 (Zu-
gastieta eta Muxika); Gernika: 3 (Lurgorri,
Gernika eta Institutua); Foru; Busturia: 3
(Busturia San Kristobal, Busturia Axpe eta
Busturia Itsasbegi); Mundaka eta Bermeo.
Usansoloko geltokian Euskotren Autobu-
sak Usansoloko Ospitalerako zerbitzua-
gaz lotura dago.

Lanegunetan, astelehenetik barikura, zer-
bitzuaren maiztasuna 30 minutukoa da,
eta gehien erabiltzen diran uneak 7:10etik
19:10era Bilbo-Bermeo artean eta 6:18tik
20:48ra Bermeo eta Bilbo artean. Zapa-
tuaetan gaueko zerbitzu berezia dago, bi
ordutik behin.

E4 BILBAO-BERMEO-BILBAO LINEAREN PERSONA KOPURUAREN BILAKAERA



EUSKOTREN HERRITARREKAZ KONEK-TATZEN DA

Eguneko eta/edo gaueko hainbat zerbitzu
berezi dagoz, E4 linearen eragin-eremuan
antolatutako hainbat izaerako ekitaldiek
eragin daikkeen eskaerei erantzuteko.
2024an Errege Magoen Kabalgata, herriko
jaiak edo Urriko Azken astelehena Gerni-
ka-Lumon; Arrain Azoka eta herriko jaiak
Bermeon; Athletic Cluben harrera Errege
Kopako txapelketagaitik; Zornotzako jaiak;
eta Bilboko Aste Nagusia eta Santo Tomas
azoka.

Luis de Landecho y Urries (Bilbo, 1852 - Ma-
dril, 1941). Arkitekto ospetsua. Bere bizitza
profesionalaren zatirik handiena Madrilen
garatu eban. Politikoki alderdi konserbado-
reari lotuta egon zan. Bere lotura politikoe-
k eta Allende Salazarrekiko ahaidetasun-ha-
rremanek (Manuel Allende Salazarren koi-
natua zan) eskualdean lan garrantzitsuak
egitera eramaneben: trenbidearen susta-
pena, Gernika-Lumoko San Juan Ospitalea
eta Eleiza eraikitzea (egungo Calzada egoi-
tza) eta Mundakako udaletxearen proiektua.
Bere lanik aipagarrien artean, Bilboko San
Frantzisko Asiskoaren eleiza eta Ritz Hotela,
Zabalburu jauregia, Santa Kristina Amaetxea
eta Madrilgo Ateneoa dagoz.

Manuel Allende Salazar (Gernika-Lumo,
1856-Madril, 1923): Ingeniari agronomoa
izan zan eta Madrilgo alkate izatera iritsi zan.
1884an Gernikako barrutian diputatu hau-
tatu eben. Geroago, 1900. urtean, Alfontso
XIII.a erregeak bizi osorako senatari izentau
eban. Bere ibilbide politikoa 1919an iritsi zan
gailurrera, Espainiako Gobernuako presidente
izentau ebenean.

Pablo de Alzola (Donostia, 1841, Bilbo, 1911):
Madrilen ikasi eban Herri-Lanetako ingeniari
karrera. 1877an izentau eben Bilboko alkate.
1886tik 1890era Bizkaiko Aldundiko presi-
dentea izan zan eta 1900ean Herri Lanetako
zuzendari nagusi izentau eben. Bizkaiko se-
natari izatera iritsi zan 1907tik 1909ra. Kan-
tauriko trenbide zabalaren eraikuntzaren
defendatzaile nagusia izan zan.

Iturriak:
•Irekia. Eusko Jaurlaritza
•ETS
•Euskotren
•Zornotza eta bermeo arteko tren-50. Urteurre-
na- Juanjo Olaizola Elordi
•Gernikzarra Historia Taldea

LAURA PÉREZ UM

ETORKIZUNA DA

LIBERTATEA BERRIKUNTZA JASANGARRITASUNA

ES PORVENIR

LIBERTAD INNOVACIÓN SOSTENIBILIDAD

Horrelakoa da Euskadiko lehen
sektorea. Lan teknifikatua, antolatua,
jasangarria eta estrategikoa gure
gizartearentzat.

Hartu lekukoa gure arrantzale eta
baserritarrei eta bihurtu alternatiba
profesional hau zure bizi proiektua.

Así es el primer sector de Euskadi.
Un trabajo tecnificado, organizado,
sostenible y estratégico para
nuestra sociedad.

Toma el relevo a arrantzales y
baserritarras y convierte esta
alternativa profesional en tu
proyecto de vida.

1 Euskadiko lehen sektorea Primer sector de Euskadi

Hemen duzu etorkizuna
Aquí tienes futuro



Aldaba: 40 Urtetik gora kulturari deika

1983ko udazkenean, diktaduraren amaieraren osteko irakinaldi soziopolitiko eta kultural betean, ALDABA jaio zan. Kazetari profesionalak izan barik, fundatzaileek, horreen artean etorkizuneko komunikatzaile ezagunak, modu boluntario eta kolektiboan lan egin eben. Erreferente eta ohorezko presidente lez Manu Leguineche kazetaria izan eben. Talde txiki baina konprometidua mantentzen dau aldizkariak. Talde honek ale bakoitza benetako artisau-ahaleginagaz egiten dau.



Hasierako Aldabako taldea, 1983an. Argazkia: Aldaba

ALDABA Gernika-Lumoko eta bere inguruko eraldaketaren lekuko eta kontalari izan da. Sortu zanetik udalerriko bilakaera soziala, ekonomikoa, kulturala eta ingurumenekoa islatu dauz, herriko memoria kolektiboaren artxibo baliotsua bihurtuz

Berrogei urte baino gehiagoko historia dauko ALDABA aldizkariak eta Gernika-Lumoko memoriaren, identidadearen eta kulturaren sinboloa da. Ordezko eta baliabide falta izan arren, bizirik dirau. 1981eko udazkenean, frankismo osteko trantsizino betean eta Gernika-Lumon ia basamortu zan panorama kulturalaren aurrean, kulturarekiko ardura eta kezkak ebezan persona eta alkarte talde batek udalerriko lehen zinekluba antolatzea erabaki eben. "Agur Everest" filmaren proiektinoa arrakastatsua izan zan eta ondoren etorriko zanaren hazia erein eban.

1982ko udazkenean egindako bazkari batean, kolektibo desbardenetako 40 persona inguru: Zine Klub, Espeleologia-ren lagunak, Ekologi Tailerra, Andra Mari Korala, Eskautak, Emakumeen taldea, Gernika rugby, Arte eskola, Ekin Taldea, Bertsolari Eskola, kazetaritza ikasleak eta herriko kulturari inplikautako personak



Aldaba aldizkariak. Argazkia: Nueva Europa

Kulturetxean batu ziran herriko argitalpen bati bizia emateko. Eta horrela jaio zan ALDABA, "kulturarako deia" izateko asmoagaz.

Izena Ricardo Abaunzaren proposamen bat izan zan, eta laster ikur bihurtu zan, Gernika-Lumoko kulturaren atean alda-ba-hotsa. "Por fin un centro de salud" izeneko bere lehen alea, 1983ko otsailean argitaratu zan, 1982ko azken hilabeteetan zero ale bat kaleratu ondoren. Lehen aurkezpen ha xumea bezain atsegina izan zan: *El Chino* tabernan (gaur egun *Katu*), ardo-porroiekaz eta kakahueteekaz. Ondoren, kolaboratzaileak aldizkaria herri osoan saltzera urten ziran, alea eskuan. Ordutik, ALDABA Gernika-Lumoko eta bere inguruko eraldaketaren lekuko eta kontalari izan da. Informazioen, erreportajeen, alkarizketen, kroniken, gutunen, argazkien eta bineten bidez, aldizkariak udalerriko bilakaera soziala, kalekoa, ekonomikoa, kulturala eta ingurumenekoa islatu dauz, herriko memoria kolektiboaren artxibo baliotsua bihurtuz.

HERRI-ALDIZKARIA IZATETIK EZINBESTEKO ARTXIBOA IZATERA

Bere lehen urteetan, ALDABA bi hilean behingo argitalpena izan zan, estilo hurbilekoa eta batzuetan ironikoa ebana. Aldizkariak herriko gai garrantzitsuak

jorratzen ebazan: lehen urte horretan ja-zoera garrantzitsua izan ziran uholdeetatik hasi eta erreportaje historikoetara, eretxi artikuluetara, edota umorea, barriketak eta kultura asko be. Maketazinoa eta inprimaketa Gernikako Gaubeca inprimategian mantentzen dira.

Sortzaileen artean ez egoan kazetari profesionalik. Gehienak hainbat diziplinatoko ikasleak edo lizentziadu barriak ziran. Batzuk kazetaritza ikasten ari ziran eta, denboragaz, horreetako batzuk profesional ospetsu bihurtu ziran: Olga Zabalgoeaskoa, Dorleta Alberdi, Gorka Lejarcegi, José Mari López, Humberto Unzueta, Maika Salguero edo Alberto Uriona, besteak beste. Erreferente handienetako bat Manu Leguineche izan zan, aldizkariaren "zuzendari espirituala" eta ohorezko lehendakari izan zana hasieratik.

NORTASUN KOLEKTIBODUN ALDIZKARIA

ALDABA ez zan proiektu itxi lez sortu, sensibilidade desbardenen arteko topagune lez baizik. Lehen etapetan, ildo editorialari buruzko eztabaidak izan ziran: batzuek oso aldizkari kulturala gura eben, beste batzuek politikoagoa edo umoretsuagoa. Denboragaz, ikuspegi bardinakoak geratu ziran: eduki interes- >>>

garriak, kalidadezkoak, baina eskuragarriak, sinpletasunez, ironiaz eta hurbiltasunez idatziak.

Gaur egun, ALDABAk zenbaki bakoitza Vicente del Palacio, Teo Gandarias, Jabi Yarza, Toribio Beares, Segundo Oar-Arteta eta taldea koordinatzen dauen Marian Roscok osatutako talde txiki baten lanaren emaitza da. Barikuro batzen dira aldizkaria planifikau eta egiteko, ohiko idazleen laguntzagaz. Aldabakoek horrela aitortzen dabe: *"ale bakoitza ateratzea erditze bat bezala da"*.

Eduki-ardatz baloratuenetako bat erdiko dosierrak dira, batez be Gernikazarrak egindako ikerketa historikoari buruzkoak. Bertoko gaurkotasuneko gaiak, alkarrizketak, erreportajeak eta maila handiko kanpoko kolaborazinoak be lantzen dira.

FINANTZAKETA, ERRONKAK ETA ETORKIZUNA

Finantzaketa erronka bat izan da beti, gero eta eskasagoak diran publizitatearen, harpidetzen eta udal-laguntzen arabera.

ALDABAk hainbat ekimen kultural eta kirol-ekitaldi arrakastatsu bultzatu dauz, esaterako Fulbitoren 24 orduak (1984-1993), Gernikako Bira (1984-1988) edota Gernikako Milia (1985-2003). Liburuen edizinoan be parte hartu dau: Busturialdeko Irudiak 1983-1993, SUSTRAI ERREAK, 50 BONBARDAKETAREN URTEURRENA (1987) eta SUSTRAI ERREAK 2, GERNIKA 1937 (2012). Gernikako bonbardaketaren 75. urteurrena zala eta.

Nekea, belaunaldien arteko erreleborik eza eta finantza-zailtasunak gorabehera, ALDABAk zutik dirau

Gaur egun, aldizkaria digitalizauta eta biltegi ofizialetan eskuragarri dago, esaterako Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegian, eta horrek aldizkaria konserbatzea eta jendearen eskura jartzea bermatzen dau.

IRAUTEN DAUEN ARGITALPENA

Nekea, belaunaldien arteko erreleborik eza eta finantza-zailtasunak gorabehera, ALDABAk zutik dirau. Urtero, abenduan, arduradunek euren buruari galdeztzen deutse ea merezi dauen jarraitzea. Eta urtero, erantzuna baiezkoa izan da. Irakurleen profila aldatu bada be, 45 urtetik gorakoen artean gehienbat, oihartzuna izaten jarraitzen dau herri barruan zein kanpoan, batez be atzerrian bizi

direnen eta aldizkaria beren lurrarekiko zubi emozional gisa hartzen dabenen artean.

ALDABA erreferentzia bat da Gernika-Lumoko historia, nortasuna eta bilakaera ulertu gura dabenenentzat. Herriari buruz jakin gura dauenak bere hemerotekara joan beharko dau. Fundatzaileetako baten dinoen bezala, *"herriari egiten deustsagun oparia da"*. Lanez, kulturarekiko maitasunez eta oroimen kolektiboarekiko konpromisoz beteriko oparia.

MIREN GARAY **UM**

Gaur egun, aldizkaria digitalizauta eta biltegi ofizialetan eskuragarri dago, esaterako Bizkaiko Foru Aldundiaren Liburutegian



Gaur egungo Aldaba aldizkariko lan-taldea. **Argazkia:** Nueva Europa

50 urte odola emoten Gernikaldean



AMAGOIA L. DE LARRUZEA ZARATE , ODOLKIDEAK alkarteburua.

Bertoko bizilagun batzuen ekimenaren eta gestinoen ondorioz martxan hasi zan odol emotea Gernikan. Orduko *Hermanidad de Donantes de Sangre de la Seguridad Social de Bizkaia* erakundea zan odola batzeko eta gestionatzeko arduraduna Bizkaian eta euren eskutik antolatu zan lehen odol emotea Gernikan 1974ko abenduaren 7an: kartelen bidez eta prentsan zabaltu zan deia (*Gaceta del Norte 6-12-1974 Mañana donación de sangre en Guernica*). Egun hareetako prentsaren eretxiz, *Un gran éxito: la donación de sangre en Guernica* (*Gaceta del N. 14-12-1974*) arrakasta itzela izan zan, izan be egun horretan 74 emote batu ebezan eta beste data bat agindu zan urtarilerako. Orduan odol emoteko lekua Estazinoko plazan (gaur Agirre Lehendakaria p.) kokatutako autobusean egoan, beti Mutua de Vizcaya erakundeko kontsultategi medikoaren lokalaren laguntzaz, eta gero be urte askotan izan da Mutua odol emotearen laguntzailea, harik eta 2002an busa Foru plaza-Artekalera ekarri arte.

1981ean hasi ziran odola emoten Gernikaldeko fabriketan: Dalia, Malta

Idurgo, Inama, Astilleros de Murueta, Maier, N. Ormaetxea-Losal, ASSA, Andia... horreetatik gaur-gaurkoz Maier eta Losalen baino ez da egiten.

ODOLKIDEAK- Gernika-Lumoko odol emoteen alkarteak eskerrak emon gura deusiez lehenengo 50 urteotan zehar emoteak eta laguntzaileak izan diran guztiei, izan be euren jardunean EAEko gaixo askoren osasuna jagoiteko eta hobetzeko baliabide bihurtu dalako euren odola. 1974 eta 2000 bitartean, 12.055 emote egin ziran busean, eta 2001 eta 2024 bitartean beste 28.652 emote izan ziran: gutxi 40.707 (ia 20.000 litro odol oso), hori guztiori fabriketan eta plasmaferesiaren bidez egindakoak kontau barik (beste 10.000 emote inguru). Zorionekoak datu horreen atzean dagozan emote altruista eta solidario guzti-guztiei.

Urte luzeotan aurrerapen mediko eta teknologikoak egin badira be, ezin dogu odola "egin", eta pertsonen donazino altruistei esker baino ezin da lortu. Altruismoa edo eskuzabaltasuna odol emotearen zutabe sendoa da eta borondatezko pertsona askorentzat

odola emoteko eragilea da. Geroan, antza danez, plasmaferesia edo plasma emotea elementu estrategikoa izango da eta horren aldeko ekimena bultzatu da Europa osoan. Horri be ekin behar deusagu berton.

Gernikan odola emoteko horrenbeste urte pasau ostean, orain urte osoan ospatu eta zabaltu dogu urteurren hori baliabide honeen bidez: *50 urte odola emoten Gernikaldean* goiburua, logo berezia hileroko deialdietan, ekainean 103 emote omenaldi erraldoia, erakusketa Kultur Etxean eta 1.500 aleko aproposaldeko aldizkaria lehen-orain-gero hori aztertzeke; Facebook eta Instagram sareetan Odolkideak izeneko guneak be sortu doguz. Hori egin ahal izateke bide laguntzaile euki doguz erakundeak eta Gernikaldeko udalak.

ODOLKIDEAK alkarteak 1974an hasitako beharrari pozik eusten deutso aurrera egiteke. Herri mailan odol donazinoaren alde egiten dogu. Horixe da gure ekarpena boluntario moduan.



Eta betiko lez, Foru plazan-Artekalean autobusa egoten da hileroko lehen astelehen bietan ordutegi zabalean (9:30-14:00, 16:30-21:00), eta hiru hilerik behin lehen zapatu goizean hurreratzen diranak hartzeko prest. Baldintzak: 18-65 urte, 50 kilo, eta osasuna bertako talde sanitarioak baloretan dau. Erdu eta emon! Odola ezinbestekoa da!

www.donantesdesangre.eus | 900 303 404 |  

Benito Barrueta, egiaren margolaria



Autorretratua c. 1905. **Argazkia:** © Arte Ederren Bilboko Museoa-Museo de Bellas Artes de Bilbao

Bere izena letra larriz idazten da artearen munduan, halanda be, bere izaera isil eta diskretuak, sentiberatasun eta fintasun nabarmenagaz batera, lagundu dabe bere figura ia oharkabea pasa izatean publiko zabalarentzat. Nazioartean ezaguna dan margolaria izateaz gain, Benito Barrueta profeta izan zan bere herrian, maitatua eta baloratua. Bermeok etenbako omenaldia egiten deutso bere izena kale, institutu eta herriko kultur alkarte bati jarritz, eta bere omenezko eskultura bategaz.

Jaio zanetik, Benito Barrueta Bermeoko ondare historikoari lotuta dago. Martin Barrueta Muguruza tailugile eta ebanista bermeotarraren eta Maria Luisa Asteinza Atxirikaren semea, Ertzilla Dorre historikoan jaio zan 1873an. Garai hartan, hainbat familia apal bizi ziran dorrean, alokairuan. Bere familia horrelakoa zan. Bere aita, ebanista, Bermeon "Santero" ezizenez ezaguna zan, santuen iruditxoak eleiza eta prozesinoentzat zizelkatzen ebezelako. Txikitatik aitaren marrazki eta proiektuak ikustez ohituta ego-teak berehala piztu eutsozan trebetasuna eta artearekiko zaletasuna.

Hil baino bi urte lehenago sortu zan bere omenezko alkarte Bermeon, Barrueta Arte Alkarte, eta Barruetak berak autoerretratu bat emon eutson, ondoren udalari dohaintzan emondakoa

1889an Bilbon hasi zan pintura ikasten Antonio María Lecuonagaz, euskal kostunbrismoaren aitzindaria eta beste artista batzuen maisua. Bertan, besteak beste, Unamuno, Anselmo Guinea eta Ugalde, Paco Durrio, Gustavo de Maeztu eta Adolfo Guiardekaz bat egin eban. Garai hartakoa da Barruetari buruz ezagutzen dan lehen lana, "Coloquio entre dos bebedores" (1890). Bitxia bada be, bere maisu izandakoaren kopia da, eta Unamunok be beste kopia bat eukan.

1893an Madrilera joan behar izan eban soldadutza egitera. Han, Pradoko Museoa, Goya eta, batez be, Velázquez aurkitu ebezan, bere ibilbidea markatu ebana. Bere heziketa artistikoagaz jarraitu ahal izan eban Bermeoko Udalaren beka bati esker eta trukean udal bildumako bi koadru margotu ebezan: "La bendición de

la lancha", 1899 eta "Marina", 1900. Bere maisu nagusia hemen Marcelino Santa Maria izan zan.

Gehiago ikasteko gogoak Parisera eramaneban, ia baliabide ekonomiko bari, Bermeoko Udalaren beka bat bakarrik. Han, Montmartreko Bateau Lavoire hartu eban ostatu, artistentzako egoitza xume batean, eta geroago nabarmendu ziran margolariekaz bizi izan zan, esaterako Picasso, Van Dongen edo Juan Grisegaz, baina ez eban haien eraginik izan. Parisen bizi izan zan hamaika urtez, eta 1907ko eta 1910eko Salon d'Automne-en erakutsi ebazan "Rue Ravignan" eta "Naturaleza muerta" lanak, hurrenez hurren.

Lehen Mundu Gerraren ezteandak itzularazi eban, eta bere herriko Nautika Eskolako eta Arte eta Lanbide Eskolako marrazke-

>>>



Barrualdea. **Argazkia:** ©Arte Ederren Bilboko Museoa-Museo de Bellas Artes de Bilbao

ta-irakasle izendau eben, Frantziskota-
rren komentuarien ondoko eraikinean.
Irakasle lana eta bere jardura artistikoa
uztatu ebezan. Bere koadruak Parisera
bidaltzen ebezan saltzeko eta erakuske-
tak egiten ebezan Madrilén, Parisen edo
Bruselan. Garai horretakoak dira inguru
hurbila erretratatzen dabén koadruak,
erretratuak eta izaera intimistako paisaia
bermeotarrak.

Arlo personalean, 1921ean 48 urte ebeze-
la Leandra Bilbao bermeotarragaz ezkon-
du zan. Bermeon bizi izan ziran, Talan.
Gerra zibila hasi zanean, Frantziara er-
besteratu ziran, harik eta 1940an Ber-
meora bueltau ziran arte. Bermeon hil zan
1953an. Hil baino bi urte lehenago sortu
zan bere omenezko alkarte, Barrueta

Arte Alkartea, eta Barruetak berak autoe-
rretratu bat emon eutson, ondoren udalari
dohaintzan emondakoa.

**HARMONIA GORDEAK ETA TONU DELI-
KADUAK**

Garaiko teknika barritzaileek ez eutsoen
eragin, baizik eta pinturaren kontzeptu
tradizionalari eutsi eutson. Haren lana ore-
katua dala dinoe, malenkoniatsua kasu
askotan.

Egia zalea zan, berak esaten eban *"pintu-
ran zailena gezurrik ez esatea da, Veláz-
quez miresgarriak ez eban inoiz gezurrik
esan"* (1945ean Javier de Bengoecheak,
garai hartan Bilboko Arte Ederren Mu-
seoko zuzendaria zanak, Barruetari egin-
dako alkarrizketa baten laburpena).

Bere izaera isila zan, garaiko gizarte zirku-
luetatik urrundu zan. Erretiro horri esker,
pintura intimista garatu eban, eta bere
koadruetan umeen, emakumeen, zaharren
eta gertuko paisaien etxeko eszenak dira
nagusi. Giro horren adibide dira *"Las dos
hermanitas"* (Prado Museoa) edo *"Interior
de Estudio"* (Bilboko Arte Ederren Museoa)
koadruak.

Argia erabiltzen maisua zan. Leandra alar-
gunak kontaktzen eban, arratsaldera arte
itxaroten eban beti pintatzen hasteko. Erre-
tratugile ona, bere azken autoerretratu
Bilboko Arte Ederren Museoa dago. Ber-
meoko San Frantzisko eleizaren barruko
erretaula be margotu eban, eta Alejandro
de la Sotaren *"Rosalia en París"*, *"San Fran-
cisco de Asís"* eta *"Historias de Bermeo"* be-
zalako liburuak ilustrau ebezan.

Bere ondarea zabala da eta bere izena
hondino pintura klasikoan eta bere jaiote-
rrian entzuten da: "Barrueta Arte Alkartea"
pintura-alkarte; Nestor Basterretxeak
egindako bere jaiotzaren mendeurrenean
Talan jarritako eskultura; bere omenezko
kale bat, futbol-zelaiaren eta pergolako
aparkalekuaren artean, eta Ignacio Aroce-
na-Benito Barrueta bigarren hezkuntzako
institutua.

Iturriak:
· Prado Museoa
· Bilboko Arte Ederren Museoa
· Hitzaldia: Dohaintzak 2022, Bilboko Arte
Ederren Museoa. Andone Narváez Golinondo,
Benito Barruetan espezializatutako ikerlaria.

LAURA PÉREZ UM



Nestor Basterretxeak Barruetaren omenez egindako eskultura Bermeoko Talan. **Argazkia:** Nueva Europa

ERAKUSKETA | Exposición

AZAROAK 13 Noviembre

Busturia gogoan
MEMORIAREN
LEKUKO

HRADIŠTKO,
Txikoria-belarrak loratzen
ez zirenean
Cuando los dientes de león no florecían

AZAROAK 13 - 28 Noviembre

MADRILGO EUSKAL ETXEA
Euskal Etxea de Madrid
Jovellanos kalea, 3 Madrid

11:30 h - 21:00 h
(Astelehenetik-Larunbatera De Lunes a Sábado)



Euskal Etxea

#EUSKADIGLOBALA



Obec
Hradištko



Busturiko
Udala



JASANGARRITASUNAGAZ
BAT!

Busturialdeko
mankomunitatea

ONTZI ARINAK
ENVASES LIGEROS

ORGANIKOAK
ORGÁNICOS

PAPERA, KARTOIA
PAPEL, CARTÓN

BEIRA
VIDRIO

ERREFUXA
RESTOS

OLIO ERABILIA
ACEITE USADO

BERRERABILGARIAK
REUTILIZABLES

busturialdekomankomunitatea@bizkaia.org | 94 625 68 84 / 94 625 47 22

Kalabazina,

urte osorako elikagai aldakor eta osasungarria

Kalabazina elikagai leuna da, eta bere izaeragaitik errezeta eta plater askotan erabiltzen da. Kukurbitazeoen familiakoa da, sandia, meloia edo kalabaza bezala, eta urte osoan aurkitzen dogun arren, udabarriaren amaieran hasten da bere aro naturala, udazkenera arte irauten dauena.



Kalabazinak. Argazkia: Freepik

Kalabazinaren jatorriak teoria desbardinak dauko. Batzuek jatorri asiarraz berba egiten dabe, eta beste batzuek jatorria Amerikan daukola; batzuek nabarmen-tzen dabe arabiarrek izan zirala beren labrantza Mediterraneoko eskualdeetara hedatu ebenak, eta beste batzuek, barriz, kalabazina Amerikaren aurkikuntzaren ondoren iritsi zala Europara, gero mundu

osora zabaltzeko. Ezagutzen dana da aspalditik eskualde bero guztietan landatu-tako landarea dala.

Normalean, kalabazina barazkien saskian sartzen da, baina, botanikan, frutatzat hartzen da, landarearen loretik hazten dalako eta barruan haziak daukozelako. Kalabazin tipikoa eta ezagunena luzanga da. Azala berde iluna dauko, eta orban txiki luzanga eta irregularrak dauko, berde argiak. Baina azal ia baltz eta leuneko kalabazinak be aurki daikeguz, tonu grisak edo berde argi, hori edo kolore

bikoak, eta forma estu, luze, labur edota borobilekoak.

Kukurbitazeoen familiakoa da kalabazina. Bere taldearen barruan dagoz meloia, sandia, pepinoa eta kalabaza be. Gauza bitxia da uzta batzea, heltze-puntura iritsi barik egiten dala. Zuzenean lurrean ereiten da udabarriaren hasieran, baina geure merkatuetan eskuragarri dagoz urte osoan. Kontsumorako eta batzeko garairik onena abuztutik azarora bitartekoa da. Oso azkar hazten da, eta ur asko behar dau hazteko.

KALABAZINAREN EZAUGARRIAK

Barazki guztiek bezala, kalabazina ur ugarikoa da, % 95 ingurukoa. Beharbada horregaitik batzuek gatzbako elikagaitzat hartzen dabe, zartaginetik pasatzean duen ur-kantidade handia bere akatsik handiena bihurtzen dalako (beroak ura askatzen dau eta kalabazinak bere trinkotasuna galtzen dau). Trukoa da tamaina txiki edo ertainekoak aurkitzea, mamin gehiago eta ur gitxiago izaten dabenak. Izan be, zenbat eta handiagoa izan, orduan eta ur-proporzino handiagoa, orduan eta zapore txikiagoa eta pipita gehiago. Ia ez dauko koiperik, 20 kcal 100 g-ko. Azalagaz jatea gomendatzen da, bertan dagozelako nutriente gehienak. Potasio-eta zuntz-edukiagaitik nabarmentzen da, baita bitamina eta mineralengaitik be, esaterako kaltzioa, fosforoa, magnesioa eta zinka. Beraz, dieta mota askotarako elikagai gomendagarria da, batez be pisua kontrolatzeko dietetarako, kaloria gitxi daukozelako.

Kalabazina barazkien saskian sartzen da, baina, botanikan, frutatzat hartzen da

Garai batean, kalabazina abeltzaintzarako erabiltzen zan, animalientzako elikagai gisa. Gaur egun, sukaldaritzan, prestatzeko modu asko dagoz. Osasungarria eta ekonomikoa da, eta, gainera, ezin hobeto funtzionatzen dau errezeta askotan. Gordinik, entsaladetarako, edo ondo prestatuta purean, prijiduta, arrautzatua, plan-txan, tortillan eta baita espageti faltsuen moduan be. Azken hau gaurkotasun handiko errezeta da. Kalabazina oso elikagai aldakorra da, eta bitxikeria bat ezkutatzen dau: bere fruitua jangarria izateaz gain, landareko lore arrak be jaten dira. Hauek polinizazinoa errazteko bi lore mota sortzen dauz: lore arrak, laranja kolorekoak, eta lore emeak, kalabazinaren fruitua emoten dabenak.

ELISA ISPIZUA 

RECETA

*Kalabazineko pisto
tortilla*

Osagaiak (4 lagunentzat)

- Kalabazina
- Kipula
- Koipea (oliba-olioa)
- Perejila
- Berakatza
- Piperbaltza
- Tomate saltsa
- Piper berdea
- Arrautzak
- Gatza

Txikitu kipula eta prestau koipea, berakatza, perejila eta piperbaltzagaz.

Ondo egina eta urreztatua dagoenean, kalabazinak eta piper berdea botatzen jakoz.

Kontuz nahastu, ez erretzeko, eta ondo eginda dagoenean, tomate-saltsa eta irabiatutako arrautzak gatz apur bategaz gehitu.

Guztia ondo nahasten da, eta puntuan dagoenean (mamitsua eta gatz puntuan), serbidu egiten da.

(El Amparo. Sus platos clásicos-eko errezeta).



Argazkia: Nueva Europa

Anguis fragilis. **Argazkia:** (C) Bernard dupont, (CCBY-NC-SA)



suge forma, musker arima

Bere itxurak engainau egiten dau, sugea emoten dau, baina berez hanka bako musker bat da. Ziraune edo enanagoa (*Anguis fragilis*), Darwinen hautaketa naturalaren bidezko eboluzinoaren teoria modu ezinhobean praktikan jartzen jakin dauen espeziea da.

Bere itxurak egiten dau berezi. Suge itxura dauko, naras egiten dau, ez dauko hankarik, eta bere gorputza ezkata leun eta distiratsuz estalita dago. Suge emoten dau eta leku batzuetan "kristalezko suge" edo "beirazko suge" bezala ezagutzen da. Hemen be, leku batzuetan, izen bera era-

biltzen da sugegorria izendatzeko: ziraun, zirau, zirain... XIX. mendean Louis Lucien Bonaparte filologo eta euskararen maitale ezagunak (enperadorearen iloba) adierazi eban bezala, "antza danez ziraun berbak sugegorria esan gura dau". Baina ez, ziraune ez da suge bat, egia esan, musker apodoa da (hankabakoa). Milioika urteko

egokitze-prozesu baten ondorioz, hankak galtzen joan da apurka apurka, horrek zaildu egingo ebalako landareen eta lurpearen adarren arteko ibiltzea, eta, ondorioz, bere bizirauteko aukerak. Darwinen eboluzinoaren teoriaren adibide garbia.

Ziraun batez topo egiten badogu, nahikoa da bere begiei erreparatzea suge bat ez dala jakiteko. Bere begiak betazal mobigarriez hornituta dagoz, sugeek begiak finko daukozen bitartean. Itxura duen arren, kaltebakoa da, ez dauko pozoirik. Zizareak eta bareak jatea gustatzen jako, matrailazurren artean hagin txikiekaz harapatzen dauz. Horregaitik, baserritarren artean oso preziatuak dira, oso lagungarriak diralako labrantzak kaltetu daikkeen zomorro gogaikarri hauei aurre egiteko.

Ohikoa da European eta Asiako ekialdean, batez be iparraldean. Kantauri isurialdea habitat ezin hobea da espezie horrentzat. Eta zerikusi handia dauko geure klimagaz, ez jakolako eguzkia gustatzen, leku heze eta ilunak gurago dauz eta. Narrasti berezia da, zalantza barik. Gurago dau gaua eguna baino, hezetasuna eguzkiaren be-

Ziraune ez da suge bat, musker apodoa da (hankabakoa). Milioika urteko egokitze-prozesu baten ondorioz, hankak galtzen joan da apurka apurka.

rotasuna baino. Animalia hau taula edo adarren azpian bizi da zelai, sasi edo lorategietan be, eta egunsentian edo egunak oso grisak diranean bakarrik ateratzen da.

BIZIRIK IRAUTEKO JAIOA

Galtzeko arriskuan ez dagoen arren, ziraune (Europako Zerrenda Gorrian kezka txikiko espezie gisa agertzen da) Bernako Hitzarmenean¹ Fauna-Espezie Babestuen artean dago. Bere izen zientifikoak, *Anguis fragilis*ek, kontrakoa adierazten dauela emon daike, baina itxurazko hauskortasun horren aurrean, bere bizirik irauteko ahalmenak eta bere trebetasunek bere

konserbazinoa bermatu dabe. Orain bere habitat galeraren mehatxupean dago, nekazaritza-lanak ixteagaitik, pestiziden erabileragaitik edo suteengaitik.

Mehatxu baten aurrean, adibidez, buztanatik harapatzean, buztana askatzeko gai dira ihes egiteko, eta animaliak ihes egiten dauen bitartean buztana mugitzen da. Gero buztana barriro sortzen da. Denbora gehiena lurpean ezkutatuta bizi dira, gauez eta egun ilunetan irteten dira, eta, beraz, bere harrapariak oso gitxi dira, haragijale batzuk eta hegazti harrapariak. Horreetatik ihes egiten dau gorputzaren



Ziraun heldua (*Anguis fragilis*).
Argazkia: www.paleoherpetologia.com

Zizareak eta bareak jatea gustatzen jako eta horregaitik, baserritarren artean oso preziatuak dira, oso lagungarriak diralako labrantzarako.



Ziraun jaioabarria. Argazkia: www.paleoherpetologia.com

eta buztanaren albo-mobimentu azkar eta konbulsiboen bidez.

Narrasti sedentarioa da, bere bizitza osoa espazio berean gera daiteke. Beste berezitasun bat da ura etenbarik edan behar dauela, eta sugeak ez bezala, bere ahoa ez dala handitzen. Baina, gainerako narrastiak bezala, urritik udaberrira, lozorrotu

egiten da. Obiparoa da; hau da, ernaldia-ren ondoren, arrautzak emearen barruan egoten dira, harik eta hiru edo bost hila-beteren buruan ernaltzen diran arte. Bere bizitza luzea be estimatzekoa da; izan be, narrasti iheskor horreek 40 urte bizi daitezke, eta 40 cm izateraino iristen dira.

¹ Bernako Hitzarmena edo European basa-bizitza eta natura-ingurunea konserbatzeari buruzko hitzarmena.

Bernan egina 1979-09-19an, 1982-06-01ean sartu zan indarrean orokorrean. Basa-bizitzaren kudeaketari tratamendu orokorra emoten deutson nazioarteko lehen ituna da. Funtsezko hiru ezaugarriengaitik da garrantzitsua: izaera orokorra, espezieen zerrenda bakarra sortzea eta politika kontserbazionista plangintza ekonomikoan txertatzea, bereziki habitatak babesteari dagokionez.

Iturriak

- Euskadiko Naturari buruzko Informazio sistema- Eusko Jaurlaritza-Ingurumena
- Bernako Hitzarmena- III. Eranskina: Fauna-Espezie Babestuenak
- Euskaltzaindia

LAURA PÉREZ 

ZU ZARA FUNTSEZKO PIEZA GRIPEA SAIHESTEKO



JARRI TXERTOAK

GRIPEAREN AURKAKO TXERTAKETA KANPAINA 2025

6 hilabete eta 5 urte bitarteko biztanleentzat, arrisku-taldeentzat eta 60 urtetik gorakoentzat



688 638 421
info@tourdaibai.com



TOURDAIBAI

Urdaibaiko turismo
jasangarrirako elkarteak

Tourdaibai
Urdaibaiko turismo jasangarriko elkarteak
**ETORKIZUNAK
BATZEN GAITU**
* Nos une el futuro



BBK Urdaibai Zentroa:

iraunkortasun, hezkuntza eta bizikidetza espazio bizia

Leku batzuek arrastoa ixten dabe, ez bakarrik ikusten danagaitik, baita bertan bizitzen danagaitik be. BBK Urdaibai Zentroa, Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean, umeei, familiei eta ikastetxeek planeta zaintzea udako abentura bat edo aire zabaleko eskola bat bezain zirrargarria izan daitekeela ezagutzen daben guneei horreetako bat da. Bertan, hainbat belaunaldi markatu dabezen

proiektuak — BBK Udalekuak edo UIHP historikoa, esaterako — eta jolasa, emozioa eta kontzientzia ekologikoa uztartzen dabezen proposamen barriagoak dagoz, esaterako BBK Klima eta BBK Klima Ikastetxeetara. Guztiek dauke zerbait amankomunean: gozatuz ikastera eta esperientziatik ingurumenagaz konprometitzera gonbidatzen dabe.



UDALEKUAK: ESPERIENTZIA ETA BALIOEZ BETETAKO UDA

BBK Udalekuak klasiko bat dira dagoeneko Bizkaiko milaka familiaentzako. Hamarkadetan zehar, espazio seguru bat eskaini deute umeei, naturan alkarregaz bizi, ikasi eta gozatzeko. Dibersinoaz gain, Udalekuak funtsezko balioak sustatzeko diseinaturik dagoz: ingurumenarekiko errespetua, inklusioa, talde-lana eta garapen personala.

Orain, instalazino barrituek eta iraunkoragoekaz, Udalekuak hazteko eta planeta babesten ikasteko gunean bihurtu da. 2026an bueltauko da, ingurumen-hezkuntzagaz daukon konpromisoa sendotuko dauen proposamen barriagaz.

UIHP: 40 URTE BAINO GEHIAGO KONTZIENTZIA EREITEN

Duela 40 urte baino gehiagotik, milaka ikasleek bizi izan dabe **Urdaibai Ingurumen Hezkuntza Proiektuaren (UIHP)** esperientzia. Egun batzuetako egonaldia bezala hasten dana munduari begiratzeko modua aldatzen dauen esperientzia bihurtzen da: arbola bat landatu,

hegaziak behatu, biodibersidadea ikertu edo lagunekaz inguruan doguna zelan zaindu hausnartu.

Proiektuak bizirik jarraitzen dau eta barritauz, azpiegitura barriak martxan dagozela, baina espiritu beragaz: egonaldi bakoitza esperientzia eraldatzaile bihurtzea, gazteak beren inguruneagaz lotuz.

BBK KLIMA: INGURUMENAREN ZERBITZURA DAGOEN ESPERIENTZIA-PARKEA

BBK Klima ez da ohiko parkea, ingurumen-erronkak publiko orori hurbiltzeko zientzia, jolasa eta hausnarketa uztartzen dabezen espazio apartekoa baizik, Euskadin bakarra. Laborategi bizi lez sortua, planetaren erronka handiak zuzenean esperimendu eta persona bakoitza aldaketarako eragile bihurtzeko ezagutzera gonbidatzen dau.

Bisitariak esperientzia murgiltzaileak, instalazino interaktiboak eta emozioa eta ikaskuntza iraunkorak eragiteko diseinaturik jarduerak aurkitzen dabez. BBK Klimaren barruan gertatzen dana ez da erraz ahazten. Zeharkatzen dauen persona bakoitzak galdera bat, konpromiso

bat edota bere aletxoak zelan emoteko ideia barriategaz amaituten dau. Azken batean, dibertimendua kontzientzia bilakatzen dan gunea da.

BBK KLIMA IKASTETXEETARA: AIRE ZABALEKO GELA

BBK Klima Ikastetxeetara programagaz, parkea ikasgela desbardin bat bihurtzen da, ikaskuntza naturaz inguratuta emoten dala. Jardunaldi osoak dira, eta ikasleek atzean ixten dabez eskolako hormak, klima aldaketaren aurrean pentsau, sentidu eta jarduteko, dinamika parte-hartzaileen eta guztien arteko hausnarketaren bidez.

Ume askok, iraunkortasuna ez dala bakarrik ikasten, bizi egiten dala be ezagutzen dabe: jolas eta erronka bakoitzean, eta planetaren errealidadeagaz bat egiten dauen alkarrizketa bakoitzean esperimendatzen da. Hezkuntza-esperientzia honek arrastoa ixten dau eta bizi osorako da.

Ingurumen-hezkuntza teoria baino askoz gehiago izan daitekeela erakusten dau BBK Urdaibai Zentroak: bizipena, emozioa eta konpromisoa da. Hartzen dauen proiektu bakoitzak belaunaldi kontzienteagoak eraten laguntzen dau, bere inguruneagaz errespetutik eta erantzukizunetik erlazionatzeko gai direnak. Beren espazioetan, naturan, jolasa eta ikaskuntza alkar lotzen dira, iraunkortasuna urruneko kontzeptua ez dala erakusteko, alkarregaz bizitzeko modua eraldatzen dauen eguneroko praktika baizik.

Zentro bat baino gehiago, **etorkizuneko espazio bizia** da. Bertan, umeei eta helduei planeta zaintzea beren burua eta komunitadea zaintzeko modu bat be badala deskubritzen dabe.

AZTI eta Serrats Ekonomia Zirkularren kategorian *Tuna Awards* sarien irabazleak, RESALTUN proiektuagaitik



Sariak negozio-eredu zirkularra ahalik eta gehien aprobetxatzen daben ekintzak eta garapenak aitortzen dauz, azpiproduktuen balorizazioa eta beste sektore batzuek lotura sustatuz. Testuinguru horretan, atunaren aprobetxamendu integralean eta elikagaien xahuketaren murrizketan oinarritzen dan RESALTUN proiektua enpresa eta ikerketa alkarlanean aritzeak ekoizpen-prozesu eraginkorrako, iraunkorrako eta ingurumenarekiko arduratsuagoak lortzen laguntzen dauen adibidea da. Proiektuaren alderdirik esanguratsuenetako bat kontserba-sektorean uraren erabileraren eraginkortasuna hobetzea eta hondakin-uren isuriak gutxitzea izan da. Erronka historiko hau arrakastaz landu dau AZTIk, arrantza, itsas eta elikadura sektoreetan aplikautako ikerketan 44 urte baino gehiagoko esperientziari esker. Tuna Awards sarien hirugarren edizinoak, ANFACO-CYTMAk antolatu dau Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren lankidetzagaz. **UM**

Bizkaia urrian, kulturaz blai, Ondarearen Europako Jardunaldiekaz



«Ondare arkitektonikoa» lelopean, 2025eko programazioa orain arteko zabalena planteau dabe, eta doako 250 kultura-jarduera baino gehiago eskaini dauz 76 udalerritan. Bizkaiko Foru Aldundiaren koordinaziopean, jardunaldietan inplikau diran 160 entitateek —udalak, museoak eta kultura-eragileak— proposamen sorta zabala diseinatu dabe adin guztientzat: bisita gidatuak, tailerrak, erakusketak, ikuskizunak eta partaidetzako jarduerak. Barritasun moduan, edizino honetan Lurralde gonbidatuaren formatua gehitu da, eta Kantabria izango da hainbat jardueraren protagonista. Urrian zehar, herritarrek ondare arkitektonikoaren balioa aztertu ahal izan dabe ikuspegi askotatik. **UM**

Astelehenero, zezeilaren 15era arte, Eusko Label Winter Series

Lagako hondartza aukeratu dabe Eusko Label Winter Seriesen 5. edizinoak aurkezteko. Lehiaketa urriaren 27an hasiko da, Gernika Jai Alai frontoian. Bertan ospatuko dira partida guztiak. Fase erregularra abenduaren 29ra arte izango da eta ondoren finalerdietako ligaxka zezeilaren 8. arte. Finala zezeilaren 15ean izango da (12:00etan). Zestalarien 8 bikotek hartuko dabe parte, Aritz Erkiaga eta Ion Ibarluzea faborito nagusi dirala. Gainera, zesta-punta txapelketaren aurkezpena aukeratu dau Imanol Lopez atzelariak datorren udabarrian erretiroa hartuko dauela iragartzeko. **UM**



Argazkia: ERAMAN

Udako kanpainaren balantze positiboa



Uda amaitu ondoren, Urremendi Landa Garapen Alkarteak Urdaibaiko udako kanpainaren balantze positiboa egin dau. Uztalean eta abuztuan, 48.000 persona inguru pasau ziran turismo bulegoetatik, Gaztelugatxeko informazio gunetik edo

eskualdeko kudeatzaile turistikoren bat kontsultatu eben. Zifra globalek behera egin dabe 2024. urteagaz alderatuta, baina Landa Garapen Alkarteak azpimaratu dau arrakasta ez dala bisita-kopuruan neurtzen, baizik eta kalidadezko turismo eredu jasangarri lez finkatzean. Helburua turismoaren urtarokotasuna desestazionalizatzearen alde lan egiten jarraitzea da. Turismo bulegoetako erregistroen arabera, Gernikakoa da bisitatuena, 17.467 pertsonakaz. Bermeoko bulegoa 6.363 bisita izan dauz eta Mundakakoak 5.934 kontsulta izan dauz guztira. 16.341 bisitakaz, Gaztelugatxeko informazio gunek egonkor jarraitzen dau. Bestalde, turismo-kudeatzaile digitalek 1.498 kontsulta erregistratu dabez. **UM**

Urriko azken astelehenaren arrakasta

Euskal Herriko nekazaritza azokarik garantzitsuenetariko batez gozatzeko aukera izan da Gernika-Lumon. 310 postu desbardinekaz. Eguraldia lagun, 115.000 bisitari baino gehiago gerturatu ziran giro apartekoaz gozatzera. Hainbat lehiaketa izan dira, eta irabazleak dagokienez: ortuarien saria Bihortxatxu Baserriak eskuratu eban; frutena Uxarbeitri Baserriak; lore eta landareena Ortuberri; txilar-eztiarena Baskones Extiak; miel miflores eztiarena, Mikel Jauregiak; txakolin zuriarena Telleri Berria upategiak (Morga); Erdikoetxe Upelategiak (Lezama) eskuratu eban goriaren saria eta baltzarena Lapazarane; gazten sarian Eulate gaztandegia (Nafarroa) izan zan nagusi. Gazta irabazleagaitik 7.400 euro ordaindu ebazan Gaitegiz Arteagako Kanala Beach jatetxeak.



Bizkaiko ahal-dun nagusiak zalantzan jarri dau Urdaibaiko Guggenheim Museoaren zabalkuntzaren "epe labur eta ertaineko bideragarritasuna"

Elixabete Etxanobe Bizkaiko ahal-dun nagusiak, Gernikako Juntetxean politika orokorreko osoko bilkuran, proiektua garatu aurretik konpondu beharreko gai "konplexuak" dagozela ohartarazi dau. "Aldundiak kulturearen eta euskarearen aldeko apustua egiten jarraituko dau, kohesinorako ardatz lez. Guggenheim Urdaibai proiektuari jagokonez, erakundeak entzuteko prozesuaren eta bideragarritasunaren ganeke analisiaren ondorioak kaleratu arte itxoingo dau, eta, bitartean, daborduko adostuta dagozan jarduketak jarraituko dau: lurzoruen eta akuiferoen deskontaminazioa, paduren berreskuratzea edo mobikortasun jasangarriaren bultzada. Oso argi dago eztabaida hori ez dala ebartziko baietz edo ezetz bategaz. Entzuteko prozesua amaitu arte itxarongo dogu". Erabakia, argudiatu dauenez, Guggenheim Fundazioaren Patronatuaren baitan hartuko da, «bideragarritasun-azterketek emoten dabezen emaitzak zein entzute-prozesutik ondorioztatzen dana kontuan hartuta». **UM**

TRANSPORTE, ALMACENAJE, DISTRIBUCIÓN...

LOGÍSTICA

Txaporta Industrialdea, 2-1
48300 Gernika - Lumo
(Bizkaia)

Tel. 94 625 75 85
Tel. 94 625 75 40
e-mail: lgk@lgk.es

Arrien Optika

Urkieta k. 10
Tel./Fax: 946 25 63 63
Email: arrienoptika@yahoo.es

Etorkizun garbiago bat izateko ingurumeneko soluzioak

Emakumeak sareetan zikloa, Interneteko narratiba matxistak eta gorro-tozkoak desmontatzeko

Bizkaiko Foru Aldundiak Emakumeak sareetan zikloa martxan jarri dau, plataforma sozialetan genero-desbardintasunari aurre egiteko. *Emakumeak Estrategia* emakumeak ikusarazi, espazio publiko eta digitaletan daukeen presentzia indartu eta benetako bardintasun eraginkorrenantz aurrera egiteko Bizkaiko Foru Aldundiak dauen estrategia da. Ziklo honegaz, Bizkaiko Foru Aldundiak indartu egiten dau bardintasunaren eta feminismoaren aldeko apustua eta, aldi berean, gazteak inspiratzen dabezen erreferenteak hurbildu gura dauz, ingurune digital seguruagoa, kritikoagoa eta askotarikoagoa eraikitzeko.

UM

Bizkaiko udalek aurton jasotako baino % 6,71 gehiago jasoko dabe 2026. urtean

Bizkaiko Finantzetako Lurralde Kontseiluak 2026. urtean zehar lurraldeko udalerriei emongo jakezen funtsen zenbatespena onartu dau: 1.206.756.554 milioi euro guztira, 1.195.498.361 milioi euro UDALKUTXAtik eta 11.258.193 milioi Gizarte Zerbitzuen Funtsaren bitartez. Bi funts horreek % 6,71 gehitu egin dira (75,9 milioi euro), 2025eko ekitaldiko aurrekontuan jasotako zenbatekoen aldean (2025eko ekitaldiaren itxiera zein izango dan otsailean jakingo da). Udalkutxa - Udal Finantzaketarako Foru Funtsaren zenbatekoa erabakigarria da udalek hurrengo ekitaldiko aurrekontuak egin ahal izateko. Udalerrien arteko banaketa, besteak beste, irizpide hauen arabera egiten da: biztanleria, langabezia-tasa, ahalegin fiskala, ikastetxe publikoetako ikasge-la-kopurua edo biztanleriaren sakabanaketa.

UM

Landa emakumeen errealidadea, erronkak eta aukerak



Busturiko Udalak Memoria Historikoaren berreskurapenari buruzko erakusketa antolatu dau Madrilgo Euskal Etxean

Busturiko Udalak *"Hradištko. Txikoria belarrak loratzen ez zirenean"* izeneko erakuseta inauguratuko dau azaroaren 13an Madrilgo Euskal Etxean. Erakusketa hau Gogora Institutuagaz (Memoriaren, Bizikidetzaren eta Giza Eskubideen Institutua) lankidetzan sustatua da. Erakusketa memoria historikoa berreskuratzeko "Busturia Gogoan. Memoriaren Lekuko" ekimenaren barruan dago eta Txekiar Errepublikako Hradištko kontzentrazino-esparruan bizi izan ziranen irudiak eta testigantzak batzen dauz. Bi herriak lotzen dabezen gertakari historikoez Anjel Le-kuona busturiarragaz daukee zerikusia. 1945ean fusilau eben, Hradištkon preso egoala. Erakusketa bi herriek euren historia ezagutu eta ulertzeko daukeen borondatean oinarritzen da, bai-ta adiskidetasun eta anaitasun loturak sendotzeko gogoan be.

UM

JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK

www.jjggbizkaia.eus

GERNIKA

BIZKAIKO PARLAMENTUA



GEREDIAGA

ZIN EGITEKO ERMITA



ABELLANEDA

ENKARTERRIETAKO MUSEOA



BILBAO

EGOITZA ADMINISTRATIBOA



BIZKAIKO MERKATARITZA

OSO PRO

PROAKTIBOA,
PROFESIONALA ETA
OSO GERTUKOA



Mikel Achaerandio
BIZIKLETA DENDA * GETXO